

NUKLEO POSITIBOA

Bakearen aldeko ekimenak Euskadin.
Herri-mugimendu eta elkarteak



Ehunberri Koaderno 1
2014-2015eko negua

Esker onak

Beren ezaguerekin eta gogoarekin lan honi bide eman dioten pertsona eta elkarte bakezale guztiei eta, batik bat, Euskadiko Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzarako Elkarteen Foroa osatzen dutenei.

Hirugarren pertsonak argitalpen honetako edukia banatu, kopiatu edo erakuts dezakete, betiere jatorria aipatzen badute. Alabaina, ezin da merkataritza-helburuetarako erabili.

Egilea:

Xavier Mínguez Alcaide

Itzulpenak:

Bitez Translating Worlds

Diseinua eta maketazioa:

Otzarreta Komunikazioa (Zarautz)

Edizioa:

DSS2016

ISSN:

2444-8311

*Nukleo Positiboa.
Bakearen aldeko ekimenak Euskadin.
Herri-mugimendu eta elkarteak.*

Donostia 2016
Bakearen Itsasargia

Ehunberri: espazioak eta elkarguneak gizarte ehun berri baterako, arloko azterlanen inguruko ikerketa psikosoziala da, eta Donostia 2016 Fundazioak, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gune Irekiak taldeak sinaturiko hitzarmena dela-eta abiarazi da.

Ehunberri ikerketaren bidez, bakeari ekarpena egin eta Euskadiko gizarte-egitura berreraiki nahi da, jakintza, partaidetza eta elkarriketa oinarri hartuta. Ehunberri-ren diseinuak gatazken eraldaketa sistemikoaren ikuspegi psikosozialari jarraitzen dio. Ikuspegi horren arabera, garrantzitsua da bakearen arloko eragile gakoek parte hartzea, honako hauek ardatz harturik: inklusibotasuna, konpromiso kritikoa eta eraikitzailea, sormenaren eta irudimenaren sustapena, eta alderdi ugariko elkarriketa. Era berean, Ehunberri proiektuarekin, bakearen alde diharduten gizarteko sektoreak ahaldundu nahi dira, haien ezaguera, balio eta nahiei indarra emanez.

Ikerketaren zuendaritza eta koordinazioa

Xavier Mínguez Alcaide
Psikologian doktorea
Gune Irekiak


Antolaketa eta finantzaketa

Bakearen Itsasargiaren arduraduna
Donostia 2016 Fundazioa

Gainbegiralea

Ramón Alzate Sáez de Heredia
Gatazken konponbidean katedraduna
UPV/EHU

guneirekiak
INTEGRACIÓN Y TRANSFORMACIÓN SOCIAL



DSS2016.EU

eman ta zabal zabal

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

SARRERA LABUR BAT

Lan hau gauzatzeko, elkarrizketak eta foku-taldeak egin ziren euren lana Euskadin bakearen alde lan egin duten euskal gizarteko erakunde eta mugimenduekin. Elkarriztea eta foku-talde horietan honako hauek aztertu ziren: elkarteen iturburua, elkarteak sustatzeko arrazoiak, horien xede nagusiak eta lan-eremuak, eta, batez ere, Euskadin bakea eraikitzeke esparruan egindako ekimen eta proposamen nagusiak. Gainera, elkarte parte-hartzaileak animatu egin zituzten Euskadin bakearen eraikuntzan gizarte zibilak egindako ekarpena baloratzera. Bestalde, lan hau elkarte hainbat iturritan oinarritu zen; besteak beste, euren webgunetan edo bibliografia-agirietan.

Aintzat hartuta dokumentua ez dela perfektua (zerrendan erakunde, mugimendu eta ekimen batzuk falta direlako, eta beste batzu sinplifikatu egin direlako), nahi genuke lana hartzea euskal gizarteak bakearen alde egindako lanaren osotasunera hurbiltzeko lehen urrats gisa.

Lan honek ez du Euskadin bakearen alde lan egiten duten elkarte, antolamendu eta ekimen zibil gutzien azterlan sakon eta xehe bat izan nahi. Lan honen xedea da gatazkaren eta indarkeriaren esparruan bakearen alde egin duten gizarte eragileen garrantzia azpimarratzea eta horiek ikusgai jartzea.

Halatan, testuan zehar Euskadin bakearen alde lan egin duten erakunde eta mugimenduen ezaugarri nagusiak eta 80ko hamarkadaren amaieratik gaurdaino gauzatu diren ekimen, ekintza eta proposamen nagusiak azaltzen dira. Hauek dira elkarteok: Argituz, Artamugarriak eta Batzart!, Bakez, Baketik, Bakeola, Bidea Helburu, Demagun Hausnarketarako Taldea, Denon Artean-Paz y Reconciliación, EGK, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Elkarri, Giza Eskubideen Hezkuntzarako eta Euskadin bakearen aldeko erakundearen foroa, Etikarte fundazioa, Fernando Buesa Blanco fundazioa, Leizaola fundazioa, Gernika Gogoratuz, Gesto por la Paz, Geuz- Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa, Lokarri, Gernikako Bakearen Museoa, Unesco Etxea eta Xirimiri Gazte Taldea.

EUSKAL GIZARTEKO ERAKUNDE ETA MUGIMENDUEK EUSKADIN BAKEA ERAIKITZEKO EGINDAKO EKARPENAK¹

Euskadin bakea eraikitzeke lan egin duten eta lan egiten duten gizarte zibileko erakunde eta mugimenduen multzoa indarkeriak eta borrokak gizartean eragindako ezinegonaren eta haserrearen katalizatzaile bat izan da. Mobilizazio masiboak, indarkeriaren eta giza eskubideen urratzeen aurkako salaketa publikoak... gizarteak bakearen alde eta bakea lortzeko erakutsitako ausardiaren eta iraunkortasunaren adibideak dira, batez ere gizartean gatazkaren urte zailenak bizi ziren urteetan, baita gizartearen zati batek errealitateari axolagabetasunez eta aspertuta begiratzen zion urteetan ere.

Erakunde eta mugimendu horien lanari esker, gizarteak etengabe presionatu ditu botere publikoak eta alderdi politikoak bake-rako politika publikoetan aurrerapausoak emateko, eta biktimak aitortzeko, duintasuna emateko eta gizatiartzeko ekimenak garatzeko. Bere diskurtso eta proposamenen eraginpean, biktimei dagozkien eskubideak asetzeko erreferentzia gisa giza eskubideen nazioarteko estandarrak hartzeko beharrari eutsi zaio. Giza eskubideak dira gizarte baketsu eta demokratiko baten bizitza kolektiboa egituratzen duen ardatza. Baieztapen hori bistakoa izanik ere, erakunde eta mugimendu horiek dira giza eskubideak imajinario kolektiboaren erdian kokatzea gehien ahalbidetu duten euskal gizartearen sektoreetako bat, bai eta euskal gizartearen gehiengo zabal batek partekatzen duen erreferente sozial bat izatea ere.

Euskadin bakearen aldeko erakunde eta mugimenduek bide desberdinak landu dituzte errealitate, indarkeria, gatazka eta biktimizazioari buruz ikuspegi konplexuagoak osatzeko; bere diskurtsoen bitartez, onen eta gaiztoen, lagunen eta etsaien arteko dikotomia haustea lortu da, baita euskal gizartearen koloreak eta ñabardurak nabarmentzea ere. Era berean, indarkeriarik ezaren eta gizakiaren duintasunarekiko errespetu sakona, desberdintasunaren balioa eta elkarbizitzeko ñabardurak goratu dituzte eta eskubideen gauzatzea lortzeko borrokaren garrantzia azpimarratu dute.

Erakunde eta mugimenduen multzoak bakearen aldeko praktikak sustatu baino zerbait gehiago egin du. Horrela, gogoeta sakona egiteko, teoria lantzeko eta bakea, adiskidetzea eta bizikidetzea gisako fenomeno konplexuei buruzko diskurtsoak eraikitzeke espazio bat izan da. Bakeari eta pertsonen eskubideei buruz diskurtso intelektualki konplexuak eta aurreratuak eraikitzeke gai izateaz gain, diskurtso horiek ezagutzera emateko askotariko kanalak sortu ditu eta kanal horiek gizarte pedagogia etengabe-

¹ *Atal honetan biltzen dira elkarrizketatutako elkarteek Euskadin bakearen alde lan egin duten mugimenduen eta erakunde guztien gainean egin zituzten balioespenak*

koaren iturri bihurtu ditu. Erakunde eta mugimenduen multzoak osatutako espazio bakezale nagusiari esker, bakearen kultura bat garatu ahal izan da, euskal gizartean gero eta zabalagoa den giza eskubideen kultura bat landu da.

Urteetan gizarte espazioak sortu ahala, elkarrizketa indartuz joan da eta gizarte balio bat dela eta arazoak konpontzeko eta gizarte eraldatzeko bitartekoa ere badela egiaztatu da. Parte hartze-ko eta elkarrizketarako eszenategiak eraiki dira, eta horiei esker, zubiak eraiki dira eta espazio sozialak, ideologikoak edo identitarioak bereizten dituen ibaia zeharkatu ahal izan da. Ausardiaz eta ahalegin handiz zeharkatu da ibaia, *kideen* presioari aurre eginez, eta modu horretara, beste errealitate batzuk ezagutu dira, konfiantza sortu da bizipen desberdinak eta gure bizitza kolektiboari buruzko ikuspegi desberdinak dituzten pertsonen artean, errealitatea sinplifikatzen duten eta errealitatetik aldentzen diren estereotipoak eta aurreiritziak gainditu dira eta *etsaia* nirekin bizi den desberdina dela ulertzeko beharra azpimarratu da.

Elkarrekin egin dugu bidea eta ustezko *bestearenganako* elkartasunezko portaerak eta jokaerak erakusteko aukera eduki dugu, eta garrantzitsuagoa dena, berarekin enpatizatzen eta bestearen lekuan jartzen ikasi dugu. Enpatia hori ezinbestekoa da gizarte balio partekatuak eraikitzeko, etika kolektibo bat sortzeko, ikuspegi desberdinak eta kontrakoak hurbiltzeko zimenduak jartzeko eta diskurtso bateratua eta memoria osagarriak eraikitzeko.

Nahiz eta bidean zailtasun handiak izan diren, ikuspegi politiko, estrategia eta praktikan desberdintasunak izan diren eta jatorri soziopolitiko desberdinetako pertsonen parte hartu duten, erakunde eta mugimenduen ekimenen apustu demokratikoa erduzkoa izan da euskal gizartearentzat eta mundu osoarentzat. Bide nagusiaren eszenaratzea egin zen Maroñoko elkarrizketetan, Gure Gatzaren Martxa aldarrikatu genuen, Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarrekin Foroa indartu da, bakea helburu eta bide bakar gisa hartuta lan egin duten pertsonen artean harreman pertsonalak eta profesionalak eta aktibismo soziala/bakezalea garatzeko loturak sortu dira. Adierazitako guztia lortu da, eta korrontearen aurka igeri egiteko energia handia behar izan da, eta horregatik, leku berezi eta nagusi batean gorde behar dugu gure memoria kolektiboan, iraganari buruz dugun oroitzapenean eta etorkizuna eraikitzeko.

Aurkakotasuna eta ziurgabetasuna nagusi ziren testuinguruetan, non polarizazioaren eraginez gizarte gisa definitzen gaituzten koloreen aniztasuna estalita zegoen, Euskadin bakearen alde lan egin duten erakunde eta mugimedu bakoitzak etengabe erein du, ereindakoaren uzta pixkanaka jasotzeko ondoren. Eta kolore horiek goratzean, gizartearen zirrikituetatik ikus daitezkeen ñabardura horiek nabarmentzean, Euskadiren irudi berri bat islatzea lortu da, indarkeriaren eta gizarte gatazkaren zentraltasunetik urruntzen den proposamen desberdin bat egin da, eta euskaldu-

na denari buruzko irudi aberatsago bat eta, batez ere, errealtate-tik hurbilago dagoen irudi bat islatu da.

Herritarrek manifestazioetan, elkarrizketa espazioetan eta mahai inguruetan egindako parte hartzea, hitzaldiek, ikastaroek eta materialek hezkuntzara eta prestakuntzara egindako ekarpena, gizarte eta erakunde espazioetan aurkeztutako ideiak eta proposamenak; azken finean, erakundeek eta mugimenduek egin duten lan guztiak zentzua eman dio gizartean bakeari eta eskubideei, elkarrizketari eta etikari, eta justiziarri eta egiari buruzko adostasun berriak eraikitzeko aukerari.

Gizarteko jarrera guztiak agertzeko lan egin da, jarrera erdibidekoak, aberatsak, anitzak eta gizarteak polarizaziorako jasaten duen presioaren aurkakoak, eta indarkeriaren eta indarkeriak eragindako minaren aurkako gaitzespena erabatekoa dela ikusi da. Bestalde, maila politikoan hitz egiteko, adostasunak lortzeko eta erabakitze beharra azpimarratu da, eta, era berean, ezinbestekotzat jo da gizartean adiskidetzeko eta ehunak eraikitze beharra, gizarte praktikak (ber)konfiguratzeko eta errealtateari buruzko esanahi berriak sortzeko beharra, bakearen kultura berri baterako oinarri izango diren esanahiak, azpimarratu dira.

Egindako ibilbide luzean, beti aipatu da pertsonei eta taldeei beharra, aukera eta eskubidea eman behar zaiela jarrera beligeranteak edo indarkeriarekiko jarrera akritikoak alboratzeko, enkistamendua eta gizartearen polarizazioa baldintzatzen duten gorrotoa eta ezinikusia gainditzeko eta indarkeria zilegitzat jotzetik edozein gizakiren funtsezko giza eskubideak, bizitzeko eskubidea, adibidez, urratzeko arrazoirik ez dagoela pentsatzera pasatzeko.

Euskadin bakea lortzeko gizarte zibilak egindako lana, ahalegina eta borroka iragana, orainaldia eta, jakina, etorkizuna da; oroitzapena, ekintza, ametsa eta proposamena da, abiapuntua, norakoa eta bidea da. Francisco Muñozek zioenez, bakea konplexua da, prozesua da, dinamikoa eta askotarikoa da, baina ezinezkoa da hitz egiten, gauzak zalantzan jartzen dituen, jarduten duen eta arriskatu eta bakearen zentzura hurbiltzea lortzen ez duen pertsonarik eta talderik gabe.

EUSKADIN BAKEAREN ALDEKO
ERAKUNDEAK ETA MUGIMENDUAK

ARGITUZ

Argituz² giza eskubideen aldeko elkarte bat da, eta bere xedea da aldarrikatzea pertsona orok, euskal esparruan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta giza eskubideen beste arau batzuetan aldarrikatutako eskubide guztiak gozatuko dituzten egoera. Begirada helburu orokor horretan jarrita, Argituz-ek ikerketa eta ekintza lanak egiten ditu giza eskubide guztiak sustatzeko, eta bereziki osotasun fisiko eta mentalaren aurkako zapaltze larrienen amaiera, kontzientzia eta adierazpen askatasuna eta berizkeriarik eza errazteko.

Elkartea 2008an sortu zen, Eusko Jaurlaritzari aurkeztutako giza eskubideen urraketa buruzko lan bat eginik, eta Argituzek jarraipena ematea erabaki zuen, 2010ean biktimen aitortpen ekitalio eta anitzari buruzko lehen artikulua baten bidez. Erakundeak euskal testuinguruko indarkeria politikoari helduz ekin zion bere ibilbideari, baina gero zabaldu egin zuen lan esparrua, eta beste indarkeria mota batzuk ere aztertu zituen, hala nola indarkeria matxista, arrazismoa eta xenofobia, bai eta enpresa esparruko giza eskubideen urraketa ere.

Argituz-en lanaren abiapuntua eta gizarteari oro har helarazi nahi dion mezua funtsezko printzipio bat da, hots, "nolako zapalketa, halako eskubideak". NBEren gidalerroen eta nazioarteko zuzenbideko arau eta printzipioen arabera, urraketa bera jasan duten biktima guztiek eskubide berak dituzte. Printzipio horren ildotik, Argituz-en sorreraren helburua izan zen euskal gatazkari lotutako pairamen eta urraketa guztiak nazioarteko estandarretatik ikusgai egiteko lan bat egitea eta euskal testuinguruan giza eskubideen urraketei buruzko gune berriak zabaltzea.

Bere hausnarketa-, azterketa- eta intzidentzia-lanaren bidez, Argituz-ek giza eskubideen nazioarteko estandarren ikuspegia ikuskera integral batetik sartzeko lagundu nahi du Euskadin bakea eraikitzeko prozesuan, era integral batean, hau da, bai erakundeetako organoetan, bai gizartean oro har.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Aholkularitza lanak eta giza eskubideen esparruaren transmisioa

Argituz-ek, bere ibilbidean zehar, hainbatetan egin ditu aholkularitza lanak euskal erakundeentzat, giza eskubideen arloko nazioarteko araudia euskal errealitateari aplikatzeari dagokionez. Horri loturik, erakundea hirutan egon da Eusko Legebiltzarrean, giza eskubideei buruz hitz egiteko.

Prentsako artikulak eta txostenak

2010 eta 2014 artean, Argituz-ek artikulak ugari argitaratu ditu prentsan giza eskubideen urraketen biktimen eskubideei buruz. Gainera, bai bere ekimenez, bai administrazio publikoek eskatuta, hainbat ikerketa lan eta txosten egin ditu. 2011n *Biktima guztiak barne hartzen dituen begirunezko Biktimen Herri Politika helburu duen bide luzea eta Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako bizitzeko eta osotasun fisiko zein psikikorako eskubideen urraketen mapa (osatu gabea) txostenak argitaratu zituen. Beranduago, 2012an, *ORAIN DA GARAIA: Posible al da esparru lokalean biktimen oroimen bateratzailea? Esperientziak eta erronkak*, eta 2013an, *Análisi eta gomendioak ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren inguruan: Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko dekretua*.*

Ikerketa eta txosten horien ondoren, 2014an, zenbait eragilerekin batera Argituz-ek torturari buruzko ikerketa³ batean parte hartu zuen. Ikerketa horren emaitza txosten hau izan zen: *Inkomunikazioa eta tortura. Azterketa egituratua Istanbulgo Protokoloaren arabera*. Txosten horren alde azaldu dira NBEko bi errelatore eta nazioarteko zenbait erakunde.

Gaur egun, Argituz bi ikerketa lan ari da garatzen. Lehenbizikoa genero ikuspegi batetik ari da egiten, eta indarkeria politikoak emakumeengan duen afektazioa du ardatz, bai eta emakumeengan duen inpaktu diferentziala ere, hori argitara ateratzeko. Lan hori egiteko, motibazio politikoko indarkeria jasan duten emakumeen zerrendak egiten ari dira, osotasun fisiko eta psikikoaren aurkako zuzeneko indarkeriatik hasita. Zerrendak prest dudenean, helburua da hurbilketa kualitatibo bat egitea, biktimen ahaide diren emakumeekin, jasandako indarkeriari aurre egiteko estrategiak ikusteko.

Bigarrenik, Argituz azterlan bat egiten ari da indarkeria politikoak Errenterriko udalerrian izandako inpaktua ikusteko, herriko zenbait pertsonari egindako elkarrizketen bidez, gertaeren kronologiaren eta mugarri nagusien perspektiba zabal bat lortu ahal izateko, udalerrian jasandako indarkeria politikoa jasota gera dadin, baina gertakarien azterketa konparatiborik edo sailkapen hierarkikorik egin gabe.

³ *Hauek dira ikerketan parte hartu zuten eragileak: AEN, Espainiako Neuropsikiatria Elkarte/Buruko Osasuneko Profesionalak; Ekimen Elkarte, Gizarteko Arazoak Ikertzeko Elkarte; GAC, Komunitateko Ekintza Taldea, Buruko Osasunaren eta Giza Eskubideen Baliabide Zentroa; Jaiki-Hadi, Prebentzio eta Asistentziarako Elkarte; OME, Osasun Mentalaren Elkarte,; OSALDE, Osasun Eskubidearen Aldeko Elkarte; eta UPV/EHUko Gizarte Psikologia Saila*

ARTAMUGARRIAK ETA BATZART!

Artamugarriak⁴ 2006ko uztailaren 9an, garai hartan gertatzen ari zen bake prozesuaren babesean jaiotako ekimen bakezale eta artistiko bat da. Kolektiboaren aurrekariak 2005ean Gernikan egin zen bakearen aldeko Museoen Nazioarteko Kongresuan zehar sortu ziren. Urte horretan egin zen Nafarroako Artea eta Bakea lehen topaketa, arteak euskal gatazkaren konponketan egin lezakeen ekarpenak kezkatu sortutako ekimena, hain zuzen ere. Esparru horretan, *Irtenbidea posiblea da* izenburuko topaketan, aktibismo artistikotik Euskadin bakearen alde egiten jarraitu nahi duen pertsona multzo bat elkartu zen, eta horiek bultzatu zuten ekimena.

Artamugarriak ekimen artistikoa eta herritarra da, bake prozesuaren eta, zehazki, demokrazia parte hartzailearen alde egiteko, horren bitartez euskal gatazka konpontzeko urratsak eman ditzagun. Kolektibo heterogeneoa da, arteari loturiko pertsona bakezaleek osatzen dute, eta indarkeria politikoaren edozein adierazpide gaitzesteagatik definitzen da, eta euskal politikaren normalizazioaren aldeko behin betiko apustua egiten du. Bere ekimenen bidez, Artamugarriak-ek lagungarri izan nahi du indarkeriaren dinamika eta eskubide politikoaren murrizketa gelditzeko, eta bizitza demokratikoa modu globalean berritzeko.

Kolektiboko pertsonen lotura puntua da beren apustu kritikoa bake prozesu itzulezin baten alde, eta gatazkaren behin betiko konponketaren bide horretan herritarren parte-hartzearen alde. Horregatik, kolektiboak abiatzen dituen ekimenen asmo nagusia izan zen herritarren parte hartzea sustatzea bakearen eraikuntzan, 2006ko ETaren su-etenaren testuinguruan.

Artamugarriak-en asmoa *artamugarri* berriak sortzea zen, hots, baliabideen kudeaketa kolektiborako antzinako espazio zirkularrak, mendi jakin batzuetan egoten ziren espazioak, hain zuzen ere. *Artamugarrien* egituraren erdian harri bat dago, artamugarria, eta puntu horren inguruan sortzen da herri espazio bat, kolektiboa. Artamugarriak kudeaketa eta sorkuntza gune kolektibo gisa ulertzearen ideia horretatik sortzen da aulki zirkuluak sortzea hainbat tokitan, euskal gatazkaren konponketa positiborako elkarrizketa espazioak sortzeko. Azken batean, proposamen *artibista*⁵ bat da biribilean jarritako aulkien ideia, eta hala sortzen diren guneak indarkeriarik gabeko, elkarrizketarako, sormeneko eta parte hartze sozialeko espazioak dira, helburu dutenak bake prozesua bultzatzea eta agertoki demokratiko berri baterantz pausoak ematea.

⁴ <http://www.artamugarriak.blogspot.com.es/>

⁵ *Artibista deritzo artearen bitartez egiten den aktibismo bakezaleari.*
<http://batzart.blogspot.com.es/>

Antzinako artamugarrien moduan, kolektiboak sortu dituztenak sinbolo, objektu, leku, ekitaldi edo deialdi artistiko gisa konfiguratzeko dira errealitatean edo sarean, indarkeriarik gabeko espazio gisa, esku sartzerik eta eragozpenik gabe hitz egiteko eta norberak gatazkaren errealitateari eta indarkeriari buruz duen ikuspegia partekatzeko, beldurren eta aurreiritzien gainetik. *Artamugarriak* esperientzia trukea sustatzeko espazioak izan ziren, non bizikidetzak baketsurako formulak bilatzen diren eta, azken batean, proposamen kolektiboak eraikitzen diren bakean bizitzeko etorkizun hurbil bat imajinatzeko.

Bestetik, Batzart!⁶ Artamugarriak, Bidea Helburu, Gernika Gogoratuz eta Parte Hartuz kolektiboen elkargunetik sortutako ekimen bat da, euskal herritarrak bakea eraikitzeko prozesuko subjektu aktiboa izateko asmoa duena, parte hartzetik, sormenetik eta iraunkortasunetik.

2007ko lehen hiruhilekoan zehar, ETAk Barajasko aireportuko T4an egindako atentatuaren ondoren, Batzart! osatzen zuten erakundeek apirilaren 27an Gernikan aurkeztutako agiri bat prestatu zuten, ekimenaren helburuak azaltzen zituena, hala nola: herritarrak Euskadiko bakearen eraikuntzako subjektu aktibo izatea lortzea, zenbait ikuspegi eta dinamika parte-hartzaile erabiliz parte hartze aktiboko espazio kolektiboak gaitzea, Euskadin edozein aldaketa politikoren edo sozialen bideragarritasun demokratikoa ziurtatzea, bereziki Batzart!-en konfigurazioaren bidez, hots, batzar parte hartzaile, sortzaile eta *artibisten* bidez.

Batzart!-en metodologia *artibismoan* oinarritzen zen, eta hori el-karrizketa zirkular eta irekiko topaketetan gauzatu zen, Batzar KreAktiboetan, non batzar bidezko elkarrizketa sormen artistikoarekin konbinatzen zen, edo instalazio, erakusketa eta Interneteko kanpainen oinarritutako ekintzekin, gizarte zibil osoaren arretra erakartzeko asmoz.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Artamugarriak eta Aulki Zirkuluak

Artamugarri baten inguruko lehen aulki zirkulua Busturian (Bizkaia) egin zen 2006ko ekainaren 17an, Gernikako Astra arma fabrika zaharra herri kulturako fabrika bihurtzeko *0 kilometroaren* aurkezpena zela eta; orduko hartan, hogeit hamar *artibista* inguruk aulki zirkulua sortu zuten Sorbituaga-Arriatara monolitoa. Urte horretako abuztuaren 19an, bigarren aulki zirkulu bat jarri zen Biarnoko haranaren eta Erronkariko haranaren arteko San Martin Harrian, 1375ean Europa mailako lehen bake tratatu zibila, *Hiru Behien Zerga*, sinatu zen lekuan. Bi ekintza horien sinbolismotik hasi zen

⁶ *Ikus Bidea Helburu-ri buruzko kapitulua.*

Artamugarriak-en ibilbidea. Esperientzia aitzindari horietan, arteak utzi egiten dio irudikapena izateari eta espazio batek Euskal Herriko bakearen eraikuntzarekiko bizi izandako prestasuna izatera igarotzen da. Aulki zirkulua, pertsonak biltzeko espazio gisa sortua, elementu dei egilea da, eta bakearen aldeko lana egin dezakeen elementua.

Geroago, 2007ko maiatzeko udal eta erkidegoko hauteskundeetan atarian, Artamugarriak-ek Pax Avant! kanpaina jarri zuen abian. Iruñeko Gaztelu Plazako kioskoan, aulki zirkulu bat sortu zen, erdian "hautestontzi metafisiko" bat zuena, bake prozesuaren aldeko programa ideiez betea. Ekintza hori Bidea Helburu-k Donostian eta Bilbon⁷ garatutako *Ireki dezagun bakerako bidea* ekimenaren aurrekari izan zen.

2008ko otsailaren 8an, Artamugarriak-ek Uharteko aulki zirkuluari ekin zion. Herri nafarraren kasuan, kontzentrazioak gainditu egin zuen sinbolikoa, lan mintegi gisa konfiguratzeko, euskal gatazkaren konponketan behetik laguntzeko abiapuntu gisa, bizikidetzaren proposamen sortaile, positibo, eraikitzaile eta komunitarioen bidez berreraikita. Iruñeko Psikoanalisi Institutuarekin lankidetzan, lehen tailerra planteatu zen, gatazka politiko bat izanik bizikidetzaren baketsua lortzeko moduari buruz, eta erantzuna *mikropolitika* izan zen, pertsona guztien eskura dauden ekintzen bidez gauzatua. Bigarren saioan sormen artistikoa proposatu zen bakearen eraikuntzara orientatutako eta indarkeriaren aurkako forma katartiko gisa. Hirugarrenean, bakerako proposamenak zehaztu ziren, eta *Batzar Kreaktibo*a edo *Batzart*, berez, ekintza kolektiboko forma bat dela ikusi zen, elkarriketa eta parte hartze bidezkoa, enpatia sortzeko eta sufrimendua ulertzeko aukera ematen duena. Laugarren eta azken tailerrak bere jarraitutasuna iradokitzen du beste mintegi eta tailer batzuen bidez. Zikloa Uharteko Artea eta Bakea II. Topaketarekin amaitu zen, eta *Elkarriketarako mezuak* erakusketa kolektiboarekin. Uharteko esperientzia horretatik ondorioztatzen da egindako tailerrak besteekin elkarriketa bilatzeko balio duela, berez ahots desberdinen artean hitz egiteko eta entzuteko lekua izanik.

Batzar KreAktiboak edo Batzart

Batzarta edo Batzar KreAktiboak Batzart!-en bakearen aldeko ekimenaren ardatzetako bat da. 2007ko uztailean, UPV/EHUK eta Gernika Gogoratuz-ek antolatutako *Konstituzioa eta bake prozesua Euskadin* udako ikastaroaren barruan, Batzart bat egin zen, nortasun indibiduala eta kolektiboa landu zituena. Gero, urte horretako irailean, eta bake prozesuetan herritarrek artearen bidez parte hartzean zentratutako Gernikako Artea eta Bakea Nazioarteko III. Topaketaren barruan, Batzart bat proposatu zen *Haranak eta mendiak* instalazioari buruz. Instalazioa presoen pankarta hutsez

osatua eta ETaren biktimen klerazko siluetez -horiek ere hutsik-inguratuak. Parte hartzaileen kolektiboak eraiki zuen obra, pankartak eta siluetak beren gogoeta eta proposamenekin baterik.

Gatzezko mandala

Obanosko gatzagetan "gure bake gatza ekoizteko" egindako ekintza baten ondoren, "bake gatza" deskargatu zen Donostiako Zurriola hondartzan. Horrekin 20 metroko diametroko zirkulu handi bat marraztu zen harekin, eta horren barruan, ehun bat pertsonak gatzezko eta hondarrezko marrazkiak egin zituzten, beren aulkiak inguruan jarri zituzten eta erdian hutsune handi bat hondeatu zuten. Gatzezko mandala egiten zen bitartean, han bildutako jendeak bake mezuak ekarri zituen eta memoria arkatz batean sartu ziren. Aldi berean, arkatza gatzez betetako beirazko botila batean sartu zuten. Bake mezuz beteriko botila Oteizaren Lagunak txalupara eraman zuten eta, mezu guztiak jaso ondoren, txalupa Kantauri itsasoan barneratu zen eta, handik, botila itsasora bota zen.

BAKEAZ

Bakeaz bakeari, giza eskubideei eta ekologiari buruzko ikerketak egiten zituen elkarte bat izan zen, bere lana hogeit hamar urte baino gehiagotan zehar garatu zuena. 1992an sortu zuten unibertsitateari eta bakezaletasunaren, giza eskubideen eta ingurumenaren esparruari lotutako hamar pertsonen. Hasieratik, helburu izan zuen irizpideak eskaintzea hainbat gairen inguruan gogoeta egiteko, besteak beste nazioarteko harremanen militarizazioaz, ekonomia iraunkorraz, politika hidrológicoez eta ura kudeatzeko, lankidetzaren politikez, migrazio prozesuez, herritarren parte hartzeaz, gizarte mugimenduen teoria orokorraz edo bake eta giza eskubide hezkuntzaz.

Erakunde honen lana, batik batik, gogoeta eta proposamenak egitea zen, eta bere analisiarekin ekintza errazten lagundu nahi du erakunde sorta zabal batean eta herri politikan. Bereziki, urte hauetan zehar, giza eskubideen teoria orokor batean aritu da lanean, bake eta giza eskubide hezkuntza bati buruzko printzipio etiko eta pedagogikoak ezartzeko, gai askoren artean Euskadiko indarkeriaren arazoari aurre egiteko, beste hainbat gauzaren artean, eta biktimen zentraltasuna proposatzen du, ikuspegi eta ekintza pedagogikoaren forma gisa, gure gazteak jasandako indarkeriaren aurka hezteko.

Bakerako hezkuntzaz gain, bere gogoetek eta proposamenek bakearen kontzeptu konplexuaren eta bake kulturaren beste dimentsio askori ere heldu diete. Gai eta helburuen sorta zabal hori hartzeko, Bakeaz-ek liburutegi espezializatu bat izan du; azterlanak eta ikerketak egin ditu, adituen sare handi baten parte hartzearekin; zenbait liburu bildumatan eta aldizkari teorikotan bere ikerketak edo nazioarteko eta nazioarteko erakundeak argitaratu ditu; aholkularitza eta prestakuntza lanak egin ditu; artikuluak argitaratu ditu prentsan edo aldizkari espezializatuetan, eta mintegi, kongresu eta topaketetan parte hartu du.

Bakeaz-en lana triangelu kontzeptual batean oinarrituta garatu zen, giza eskubideetan, bake integralean eta garapen inklusibo eta iraunkorrean eta balio multzo batean -hala nola askatasunean eta autonomian, herritarren parte hartzean, aniztasunean, justizia sozialean, elkartasunean, indarkeriarik ezean eta bikaintasunean- oinarrituta.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Bakeaz-en Bake Eskola. Ikerketa eta gogoeta.

2000an, Bakeaz-en Bake Eskola sortu zen topaketa eta elkarrizketa leku gisa, prestakuntza eta ikerketa institutu gisa, informazio eta dokumentazio zentro gisa, eskola ingurunean aholkularitzako, bitartekaritzako eta esku hartzeko talde gisa, eta baita

analisi kritikoko eta salaketa publikoko tresna gisa. Bere helburua bake kultura batean hezteak zen, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen, garapen iraunkorraren, herritartasun demokratiko kosmopolitaren eta tolerantzian eta kulturarteko elkartasunean oinarritutako etika hiritarraren sustapenean oinarrituta.

Bakeaz indarkeriaren kulturari, batzuetan ukatuari edo minimizatuari, euskal gizartearen zati batean zegoenari erantzuteko premiatik sortu zen euskal kasuan, panorama horri indarkeria eta indarkeriazko azpikultura politikoaren modu berezi bat gehitzen zitzaion: ETAren indarkeria terrorista, eta hori justifikatzen eta adoretzen zuten pertsona eta erakundeek ideia pila. Testuinguru horretan, beharrezkoa zen bake kulturaren eta giza eskubideen sustapena helburu zuten proposamenak prestatzea eta ekimenak gauzatzea, horiek nahitaezko balioak baitira bizikidetzarako demokratikoa eta garapen pertsonala eta kolektiboa lortzeko. Bake kulturaren balioak gure gizartean errotzen saiatu da Bakeaz.

Gogoeta taldeak

Gogoeta taldeak izeneko ekimena 2004an sortu zen ikerketa eta gogoeta teorikoko proiektu gisa, helburu hauekin: gogoeta truke-rako espazio bat sortzea ezagutzaren zenbait diziplinatarako aditu eta profesionalen artean; bake eta giza eskubide hezkuntzaren oinarri teorikoei buruzko ikerketan laguntzea, horiek Euskadiko egoerara aplikatuta; bakerako hezkuntzari buruzko azterlanak eta material didaktikoak prestatzea.

Lan metodologia sinplea zen: aukeratutako gai bakoitza eztabai-datu egiten zen hezitzaileek, filosofoek, soziologoek, legelariak, historialariak eta politologoek osatutako taldeetan, gogoetaren xede zen gaiaren zuzendari zientifikoak prestatutako dokumentu/zirriborro batetik abiatuta. Eztabaida prozesu horrek, ondo zuzenduta, zenbait dokumenturen azken idazketa egitea ahalbidetu zuen, argitaratu diren eta hedapen handia izan duten zenbait gai buruzko proposamen pedagogiko eta teorikoekin.

Gogoeta talde horien emaitza da azterlanak prestatzea, argitaratzea eta hedatzea; adibidez, hezitzailearen tolerantziari eta neutraltasunari, erakunde hiritarrei eta bakerako hezkuntzari, torturari, terrorismoaren biktimek bigarren hezkuntzan egindako lekukotzari buruz, etab. Adibide gisa, 2012an bi gogoeta talde jarri ziren abian: *La educación para la paz reconfigurada. La perspectiva de las víctimas* eta *Gesto por la Paz de Euskal Herria: una radiografía crítica y multidisciplinar*.

Bakeaz-en argitalpen lana

Bakeaz-en argitalpen lana bere jardueraren elementu nagusia izan da, eta horren isla dira honako bilduma hauek: Serie Orokorra; Gernika Sarea; *Derechos al Cine*; Worldwatch koadernoak; Bakeaz koadernoak; Bake Eskola. Serie Orokorra bildumak Ba-

keaz-en jardueraren intereseko arlo guztiak (bakea, ingurumena eta giza eskubideak) hartzen ditu barnean, eta ikertzaile espaino-
len -Bakeaz-i lotuak ala ez-, europarren eta amerikarren ikuspegi
berritzaileak jakitera ematen saiatzen da.

1996an, Bakeaz-ek Gernika Gogoratuz Fundazioaren eskain-
tza bat onartu zuen gatazken konponketaren teoriari buruzko
zenbait alderdiri helduko zion liburu bilduma bat argitaratzeko.
Proiektu horri esker bakearen inguruko ikertzaile garrantzitsuen
hamar izenburutik gora argitaratu ahal izan ziren, eta horien ar-
tean nabarmendu ditzakegu John Paul Lederach-en eta de Johan
Galtung-en lau saiakera, edo Gernikako bonbardaketari buruz
Euskadin argitaratu zen ahozko historiari buruzko lehen azterla-
na, Historiako katedradun Maria Jesus Cavak zuzendutako iker-
keta proiektu baten emaitza dena.

Bakeaz koadernoak dira, agian, Bakeaz-en bilduma garrantzi-
tsuena, argitaratutako izenburu kantitateagatik -ehundik gora-,
edukien zehaztasunagatik, hedapen zabalagatik -hogei izenburu
inguru argitaratu dira 60.000 eta 105.000 ale arteko tiradetan,
Trabajadores de la Enseñanza irakaskuntza aldizkarian separata
gisa-, horien aldizkakotasunagatik -urtean sei zenbaki- eta ho-
rien adinagatik -1994an jaio zen-. Azterlan monografikoak bil-
tzen ditu defentsaren ekonomiaz, segurtasun politikez, bakera-
ko hezkuntzaz, gerra gatazkez, lankidetzaz politikez, ekonomia
iraunkorraz, gizarte mugimenduez, herritarren parte hartzeaz...
zentroari lotutako adituek edo kolaboratzaileek egindakoak. Bihi-
labetekari bat da, eta pentsamendu kritikotik eta hartutako kon-
promisotik prestatutako azterlan labur eta zorrotzetan interesa
duten pertsonak edo erakundeak sustatzen saiatzen dena.

BAKEOLA

Bakeola⁸ gatazkei modu egokian heltzean espezializatutako zentro bat da, 2002an sortu zena, Ahimsa, indarkeriarik eza lantzen zuen Ede Fundazioaren departamentu bat profesionalizatu zenean. Bere jarduerak bat datoz bake positibo, justizia sozial, berdintasun eta gatazkaren perspektiba sortzaile kontzeptuekin, azken hori desberdintasuna sortzen duten egoerak aldatzeko eta eraldatzeko aukera gisa ulertuta.

Bakeola errealitate zehatzaren inguruabarretara egokitu da, hiru zerbitzuko -prestakuntza, laguntza eta aholkularitza eta esku hartzeko programak- egitura batetik 8 lan espazio sortzera igarota. Horien artean daude Oroimenaren Bidean eta Guztion Bidean, memoria berreskuratzen eta Euskadin bizikidetzara eraikitzen jarduten dutenak.

Hasieran, Bakeolak bakeari buruzko gaiak landu zituen, baina euskal gatazkari lotu gabeak. Euskal gatazkari buruzko lana 2008an hasi zen, 11M-ko biktimei buruzko erakusketa bat programa pedagogiko eta hezitzaile batekin osatzeko proposamena jaso zenean. Euskaditik indarkeria politikoaren biktimekin ibilbide pedagogiko bat egiten zen lehen aldian zen, kasu honetan terrorismo yihadistaren biktimekin. Horri esker, biktimek hezitzaileek duten garrantzia eta ahalmena ulertu zen. Hor hasi zen Bakeola Euskadiko indarkeria politikoaren biktimekin lanean, eta biktimek hezitzaileekin esku hartzeko programa bat egitea planteatu zen.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Bakeaz Blai

2009-2010ean, Bakeola Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoarekin lanean hasi zen, eta prestatutako Euskadiko indarkeria politikoaren biktimei talde batekin lan egiteko aukera planteatu zen, ikastetxeetara beren lekuko-tza ematera joateko. Testuinguru horretan sortu zen Bakeaz Blai, gaur egun indarrean den programa bat. Bakeolari Euskadiko bakearen eraikuntzaren arloan presentzia handiena eman dion programa da, erakundearen oinarri ideologikoak zabaltzeko baliagarri izateaz gain.

Bakeaz Blai programa pedagogiko bat da, biktimek zuzenean dituenak, eta giza eskubideen alderdiak, lantzen dituenak, besteak beste, horien urraketak, indarkeriaren deslegitimazioa, eta abar. Programa horren garapenean, lehenik irakasleak prestatzen ziren hiru hiletan zehar modu autonomoan landu zezaten programa zehatz bat, kasu honetan, zortzi eta hamar saio arteko unitate

⁸ <http://www.bakeola.org/>

didaktiko bat, eta horren aplikazioan zehar zuzeneko aholkularitza ematen zitzaien irakasleei. Programan parte hartzen duten ikasleekin unitate didaktikoa emandakoan, asteburu bat aterpetxe batean igarotzen zen, bertan bizikidetzaz luzeagoa sortzeko eta modu esperientzialagoan lan egiteko, metodologia sozio-afektibo batekin. Eguneroko eskolako dinamikatik urrun zegoen testuinguru horretan eskaintzen zizkieten biktimek ikasleei beren lekukotzak. Proiektua aurkeztu eta parte hartzeko eskatzean, biktimari ez zitzaion eskatzen soilik joateko eta bere esperientzia kontatzeko, baizik ikasleekin jardura gehiago konpartitzeko. Asteburua aterpetxean igarotzeko, lanak ikastetxeko ikasgelan jarraitzen zuen.

Gaur egun, parte-hartze eremua aldatu da, eskolakoak ez diren kolektiboekin ari baita lan egiten; izan ere, hezkuntza formalarekin zerikusia duen guztia Eusko Jaurlaritzaren Adi Adian programak hartzen baitu barne. Orain helduekin egiten da lan, formatua egokitu egin da: lehen saioak hiru edo lau egun aurrekoak ziren parte hartzen zuten pertsonen herriko udal-lokal batean, eta aterpetxe batean bi egun eta erdiko formatua egun bateko formatu bihurtu da, azken saio batekin amaitzen dena.

Hezkuntza programak memoriari eta bizikidetzari buruz

Bakeolak zenbait hezkuntza programa garatu ditu unitate didaktikoen formarekin, irakasleek ikasgelan praktikan jar ditzaketanak, hala nola Oroimena Bizirik, non gerra zibileko eta frankismoko biktimekin lan egin zen; Oroimenaren Bidea, non Durangoko eta Dresdengo bonbardaketak landu ziren nerabe aleman eta euskaldunekin; Euskal Memoriala, holokausto naziko biktimei buruz lan egiten duen programa bat; Gerrako Hurrei buruzko programa pedagogiko bat, eta beste espezifiko bat Portugaleteko Gerrako Hurrei buruz.

Ekimen horietaz gain, Bakeolak *Taupada* diseinatu du, material pedagogikoak dituen programa bat topaketa eta bizikidetzaren eraikuntza lantzeko Euskadiko gatazkaren eta indarkeriaren esparruan.

Azterlanak

Bakeolan 3 azterlan garatu dira Euskadiko azken hamarkadetako memoriari buruz. Lehenik, *Euskal Memoriala* azterlana egin zen, nazismoan zehar euskaldunak kontzentrazio esparruetara deportatzeari buruzkoa; gero *Emakumeen oroimenean* garatu zen, euskal emakumeei buruzkoa gerra zibilean eta diktaduran zehar eta, azkenik, Portugaleteko Udaleko langile funtzionarioei espedienteak irekitzeari buruzko azterlan bat egiten ari da.

Laguntza eta aholkularitza prozesuak memoriaren eta tokiko memoria politiken arloan

Gizarte ehuna berreraikitzea errazteko, Bakeola zenbait euskal udalerrirekin ari da lanean, udaletan laguntza eta aholkularitza lanak eginez. Lanen helburua da udalerriko gizarte ehunaren berreraikuntza lantzea, urraketan diagnostiko bat eginez, horiei buruz hitz eginez, eta abar.

Mintegiak eta jardunaldiak

2013an Xabier Etxeberriaren idazki bat atera zen biktimen parte hartzearekin izandako esperientzia adierazgarri buruz. Testu horretatik abiatuta, Bakeaz Blai sozializatzea erabaki zen bai eta Xabier Etxebarriak aipatutako beste bi esperientziak Glencree eta Topaketa Leheneratzaileak, jakitera ematea ere, Biktimintegia izeneko proposamena oinarri hartuta. Mintegi horrek egun eta erdi iraun zuen eta Bakeaz Blai baino lehenagoko biktima hezitzaileen lanari eman zitzaion garrantzi. Jarraian, Bakeaz Blai aurkeztu zen eta programan parte hartu zuten irakasleek, ikasleek eta bi biktimek hitz egin zuten. Horrez gain, biktimekin egindako *Glencree* lan-prozesuei eta ETArekin biktimen eta presoaren arteko *Topaketa Leheneratzaileei* buruz hitz egin zen.

2013an ere, Muralismo Publico-rekin eta Martxoak 3rekin batera, lankidetzazko horma irudi bat egin zen Vitoria-Gasteizen eta beste bat Bilbon adiskidetzeari buruz, *La llave. Giltza bat* izenekoa.

Tokiko Glencree eta MemoriaLab

Biktimek *Glencree* proiektuan parte hartu izanak eman zien esperientzia jendaurrean azaltzean, herritarrei proposatu zitzaizkien gauza bera egiteko. *Tokiko Glencree*-ren ideia da jendeak Euskadiko gatazkari eta indarkeriari buruzko esperientzia pertsonala azaltzeko espazio bat, eta esperientziak oso desberdinak izan dira egin diren udalerrietan. Lehenik eta behin esperientzia pilotu bat egin zen *Glencree*-ren dokumentalaren bideoak eta jendeak gero erantzuten zituen galderak erabilita. Alkateak eta udalak herritarren deialdi bat egiten zuten, eta bi saiotan zehar jende kopuru handia biltzen zuten adiskidetzeari buruz lan egiteko, *Glencree*-ren dokumentala eta horretarako prestatutako bideoak eta galdera sorta bat erabilita.

Azkenik, *Gernika Gogoratuz* eta Gernikako Bakearen Museoarekin batera, Bakeolak ekimen bat garatu du, memoriaren eraikuntza sozialari buruzkoa: MemoriaLabs. Bi euskal udalerritan jarri dira martxan MemoriaLabs hauek, eta herritarren arteko elkarrizketa-prozesuak dira, memoria aitortzeko eta eraikitzeko, maila berean. Bertan, parte-hartzaileen kolektiboak Euskadiko gatazkari eta indarkeriari buruz izan dituzten bizipenez hitz egin dezakete, 5 lan-saiotan gutxi gorabehera.

BAKETIK

Baketik⁹ 2006ko urriaren 14an sortu zen, Arantzazun, urte horretan bertan desegin zen arte Elkarri elkarte bakezaleko hainbat kideren eta Arantzazuko Santutegiko Frantziskotarren ekimenari esker. Fundazia gatazketan lankidetzak etikorako zentro gisa sortu zen, bakearen eta etikaren kontzeptuak eskutik lotuta.

Baketik fundazioak plan estrategiko berri bat aurkeztu zuen 2012an eta zegokion xedea edo zeregina berriro definitu zuen plan hartan. Ondorioz, gaur egun eraldaketa pertsonaleko prozesuak eta hezkuntzarekin eta elkarbizitzarekin zein erakundeekin edo gizartearekin erlacionatutakoak sustatzen dira, betiere ikuspegi etiko batetik, eta sei alorretara zabaltzen ditu bere zerbitzuak: pertsona, hezkuntza, elkarbizitza, enpresa, bitartekaritza eta elkartasuna. Etapa berri honetan, hiru uste sendoetan oinarritzen da fundazioaren zeregina: itxuraz inperfektuak diren zoriontasunaren eta justiziaren eskubidea. Inongo gizakia ez dago aurrez baldintzatua zoriontasunik eza kronikoa pairatzera, inongo gizarterik ez dago kondenatua bidegabekeria menderaezina pairatzera; hobetzea eta aldatzea aukeratzeko ahalmena; eta bizitza zentzua duen aukerara zabaltzeko bidea.

Sortu zenetik, Baketik fundaziotik lehentasuna eman zaio bitartekaritza-lanari. Urteetan, gai horren inguruko hainbat hausnarke eta praktika jarri ditu mahai gainean, fundazioan indarkeriaren amaiera behin betikoa lortzeko unea iristean zer egin behar zen proposatzeko. Horrela, ETA erakundeak indarkeria behin betiko uzten zuela iragarri aurretik, Baketik fundaziotik lan handia egin da eta bere laguntza eta ekimenak aurkeztu ditu hainbat erakunde eta udalen aurrean elkarbizitza eta adiskidetzeari buruz.

Kontzeptuari berari helduta, eta sortzen duen errezeloa onartuta ere, Baketik-ek argi du nazioarteko harremanen eta harreman diplomatikoen hizkuntzan, baita hizkuntza akademikoan ere, jada sendotuta dagoen kontzeptu zibil eta politikoa bat dela adiskidetzeari. Gatazken konponbidearen, bake-prozesuen edo demokratizazioaren baitan kokatu behar dugu adiskidetzeari. Elkarrekiko errespetua eta onarpena oinarrian dituen elkarbizitza esan nahi du, eta beharrezkoa eta izugarri garrantzitsua da, gainera, gatazka suntsitzaile baten ondoren. Era berean, Baketik fundazioak ez du bilatzen aurkari izan diren pertsonak lagun egitea edo elkarren arteko desberdintasunak gainditzea. Helburutzat adiskidetzeari hartuta, errazagoa da elkarren arteko desberdintasunak gainditzea eta elkarrekiko errespetua eta onarpena lehenesten duen gizarte bat osatzea.

Baketik fundazioak ekintza desberdinak garatzen ditu bere lan-ildoan inguruan. Alde, batetik, prestakuntza-lan handia egiten du.

Zentzu horretan, gatazkak ikuspegi etikotik lantzeko ikastaroak eskaintzen ditu —4.000 pertsonatik gorako partaidetza—, edo adiskidetze pertsonaletik gizartearekiko adiskidetzera arteko prozesuari buruzko ikastaroa antolatzen du. Horrez gain, materialak eta argitalpenak egiten ditu, beti ikuspegi etiko batetik, euskal gatazka eraldatzeko eta Euskadin baketzea lortzeko ideiak, ekimenak eta gomendioak ezagutzera emateko.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Elkarbizitzarako udal-planak

2011n hasi zen Baketik hainbat herritan elkarbizitzarako udal-planak martxan jartzen. Herri bakoitzak bere prozesu propioa behar du, herri edo udalerrri bakoitzak berezko ezaugarri sozio-politikoak baititu.

4 esparru barne hartzen ditu elkarbizitzarekin erlazionatutako lan-proposamen honek: politikoa, herritarrak, hezkuntza eta hedapena.

Lan-programaren helburua da elkarbizitzarako eta adiskidetzarako kultura sustatzea herri bakoitzean, eta euskal gizarte osoan ere bai, betiere, ondorengo ezaugarri hauek azpimarratuz:

- a) Giza duintasunaren errespetua eta elkarren arteko desberdintasunen onarpena izango ditu oinarritzat;
- b) Bakea behin betiko lortzeko eta giza eskubideak sustatzeko lan egingo da;
- c) Iraganaren memoria kritikoa egin eta biktimei elkartasuna erakutsiko dien gizarte bat eraiki nahi da;
- d) Elkarbizitza eragin dezaketen hizkuntza, jarrerak eta erabakiak gizatiartzeko balio behar du.
- e) Elkarrekin adostutako oinarri etikoak eta demokratikoak gure hezkuntzan modu prebentiboan barne hartzea lortu behar da.

Programa honek egiten duen proposamenak bi irizpide nagusi jarraitzen ditu: zuhurtzia demokratikoa eta sakontasun etikoa. Proposamen hau errealista eta progresiboa da, baina, aldi berean, azken helburua argia da eta elkarbizitzaren adiskidetzea lortzea moduko erronka bati aurre egiteko beharrezkoa den konpromisoa ere argia da. Hiru lan-espazio bereizi sortu behar dira: talde politikoekin bat; bestea udalerriko hainbat herritarrekin; eta ikastetxeekin azkena. Ikuspegi desberdinetatik lan egiten da guztietan, betiere kontuan hartuta gatazka, etika edo adiskidetzea gisako kontzeptuak argitzeko beharrezkoa den prestakuntza eta desberdinen arteko elkarrizketa lortzeko parte-hartzeak duen garrantzia.

Udal-proposamen bakoitzak berezko parte hartzeko dinamikak ditu eta herritarren atxikipen-indizea ere desberdina da. Herritarrekin egiten den lanaren helburua da *tokian tokiko elkarbizitzara-*

ko kontseiluak sortzea, askotariko pertsonekin. Modu horretara, organo horiek ekarpenak jaso ahal izango dituzte, eta ekarpenak egingo dizkiete udalei zein tokian tokiko herritarrei; era berean, organoak berak landutako proposamenak zehaztuko dira. Ikuspegi hezitzaile batetik, lehen aipatutako kontzeptuen esanahia argitzen zaie herritarrei, eta, era berean, herritarrekin elkarrizketa bilatzen da; adibidez, prestakuntza-jardunaldietan parte hartzeko eta elkarrizketarako dinamikak barne hartzen dira.

Ekimenak tokian tokiko elkarbizitzarako kontseilu iraunkorrak ezartzea bilatzen du, hau da, garrantzitsua da hauteskondeak dirrela-eta udal-administrazioak aldatuta ere, kontseilu horiek ez aldatzea. Funtsezkoa da kontseiluak bere autonomia nahikoa sendotuta edukitzea, hauteskondeen dinamika eta gerta daitezkeen aldaketa politikoak gainditzeko gai izateko. Era berean, oso garrantzitsua da errealitate sozio-politiko desberdinetako pertsona ugari erakartzea ekimenera.

Hezkuntza formalari dagokionez, elkarbizitza-planetan ikastetxeekin batera lan egiten da, eta ikastetxeei elkarrekin lan egiteko aukera ematen zaie, udalerriko ikastetxe desberdinen artean izan daitezkeen bereizketak edo desberdintasunak gainditu eta elkarbizitza lortzera bidean. Baketik-ek esparru honetan egindako lana ikasleei bitartekoak ematean datza, eta, ondoren, irakasleek bitarteko horiek baliatuko dituzte ikasleei gatazkak ikuspegi etikotik lantzeko eta giza eskubideekin erlazionatutako etika aurkezteko eta beraiekin garatzeko.

Ekimenaren azken helburuari dagokionez, besteak beste gizartean eta politikan elkarbizitzarako esparruak sortzeaz gain, udalerrietan garatutako prozesuak erakutsi eta ezagutzera eman nahi dira jendartean. Izan ere, oro har herritarrentzat erreferente bihur daitezkeela uste dugu eta desberdinen artean lan egiteko eta akordioak lortzeko gai garela erakutsi nahi dugu.

Bihotzetik, elkarbizitza sustatzeko modulu didaktikoa

Programa hau DBHko 3. eta 4. mailetan eta batxilergoan lantzeko modulu didaktiko bat da. Hiru jarduera mota desberdin ditu. Lehenengoan, iragana lantzean eta ikasteen, giza duintasunaren ideia azpimarratzen da; horretarako, film bat ikusi behar da. Helburua da beste norbait hiltzera zerk eraman gaitzakeen hausnartzea, lehenik eta behin; ondoren, gure gizartean gertatutakoaz hitz egingo da; eta, azkenik, hitz egindako guztiari buruz ondorio partekatuak lortzen saiatuko gara. Bigarrenik, gaur eguna eta enpatia erlazionatzen dira. Euskadin izandako indarkeria desberdinen ondorioz anai bat galdu duten bi pertsonen testigantzarekin hasten da, hortik abiatuta, enpatiaren eta elkartasunaren kontzeptura hurbiltzen joateko. Eta hirugarrenik, etorkizuna eta elkarbizitza erlazionatzen dira, indarkeriarik eza, elkarrizketa, elkarbizitza eta adiskidetzea sustatzeko hainbat jarduera eta dinamikaren bitartez.

BIDEA HELBURU

Bidea Helburu¹⁰ 2002an sortu zen Indarkeria Eza Aktiboko talde gisa eta 2013an amaitutzat jo zuen bere lana. Antimilitarismoa, ekologismoa, langileen mugimendua, euskara, autodeterminazio-eskubidea edo euskal gatazkaren konponbidea gisako mugimenduekin erlazionatutako pertsonak sustatu zuten Bidea Helburu erakundearen sorrera. Guztiak Indarkeria Eza Aktiboaren eta desobedientzia zibilaren aldekoak izanik, partekatzen zituzten balioak helarazteko beharrak elkartu zituen, gizarte-eraldaketarako bitarteko eraginkorrak eta erabilgarriak zirela sinistuta. Euskadiko indarkeria politikoa zen taldeko kideen artean kezka handien sortzen zuen gaia, eta horri erantzuteko hainbat ekimen eta hausnarketa egin zituzten.

Bidea Helburu ez zen sortu ohiko erakunde-egitura bat osatzeko helburuarekin, baizik eta bidea egiten joateko eta prozesu bat betetzeko, bere izenak dioen moduan, betiere Gandhik prozesuari eta bideari ematen zien garrantzia abiapuntutzat hartuta, xedearen garrantziaz haraindi. Zentzu horretan, Bidea Helburuk koherentzia bilatzen du bere helburuaren eta helburua betetzeko moduaren artean eta kritiko agertzen da indarkeriazko metodoen erabilera defendatzen duten estrategiekin, bai gizartean aldaketak gertatzea ekiditeko erabiltzen direnean, bai gaitzesten diren indarkeriazko balioak eta egiturak imitatuz gizartea aldatzeko erabiltzen direnean.

Logika horri jarraituz, Bidea Helburu erakundeko kideek ETA bai/ETA ez dialektika baztertu eta bestelako elementuak eta irizpideak helarazten saiatu dira Euskadiko azken urteetako historiari buruz hausnartzeko eta berau ulertzeko eta interpretatzeko, eta horretarako, indarkeria ezarekin eta desobedientzia zibilarekin erlazionatutako bestelako arrazoiketak eta esperientziak aurkeztu eta landu dituzte.

Bidea Helburu erakundeak *Indarkeriarik gabeko 500 ekintza. Historia kontatzeko beste modu bat* liburuarekin eta 2012an eta 2013an Euskadiko eta espainiar Estatuko askotariko lekuetan ikusi ahal izan den *Ziztadak-Tábanos* filmarekin esan du agur.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

'Egin bidea bakeari / Abrams camino a la paz': Aulkien borobila

2007ko maiatzaren 17tik 2012ko maiatzaren 3ra, Bidea Helburu erakundeak eta hainbat taldek eta pertsonak (esaterako, Artamugarriak) *Egin bidea bakeari - Abrams camino a la paz* proiektua garatu zuten. ETAk Barajaseko T4an atentatua egin eta 2006ko

¹⁰ <http://www.bideahelburu.org>

su-etena hautsi eta gero sustatu zuten aipatutako ekimena, bakea lortu nahi zuten sentsibilitate desberdinetako pertsonen parte hartzeko aukera emateko.

Proiektuaren baitan Aulkien Borobila sortu zen Donostiako bulebarrean (beranduago Bilbon errepikatu zen): kide anitzek osatutako talde bat aulkietan esertzen zen 15 minutuz, isilik, bakearen beharra aldarrikatzeko. Ekimenak gatazka gizatiartzeko beharra azpimarratzen zuen eta, era berean, elkartasuna erakusten zitzaien giza eskubideen urraketa jasan duten mota desberdineko biktimei eta, aldi berean, indarkeriazkoak ez diren metodoak erabilia, elkarrizketa eta parte-hartzea, esate baterako, bakea lortzeko bidean aurrera egiteko beharra aldarrikatzen zuen. Azken finean, bakea lortzeko lanean erantzukizun handien zuten erakundeei, hau da ETARI, alderdi politikoei edo erakundeei, honako ideia hau helarazi zitzaien: "Gu, desberdinak izanik, elkartzeko gai bagara, zergatik ezin dira elkartu eragiteko eta erabakitze gaitasuna dutenak? Elkar daitezela, bakea lortu arte".

Bost urte igaro eta bakearen aldeko 100 topagune isil egin eta gero, *Egin bidea bakeari - Abramsos camino a la paz* ekimena amaitutzat jo zen. Aulkien borobila osatzen zuten kideek ekimena amaitzea erabaki zuten, egoera aldatzen ari baitzen. Besteak beste, Aieteko Adierazpena egin zen, ETAK armak uzten zituela esan zuen, Ezker Abertzalea erakundeetara sartu zen berriro eta Sortu legeztatu egin zuten; eta, adierazitako guztiaz gain, gizartean gero eta ekimen gehiago antolatzen ziren adiskidetzaren eta elkarbizitzaren inguruan.

Indarkeria Eza Aktiboko jardunaldiak

2002 eta 2011 urteen artean, Bidea Helburu erakundeak Indarkeria Eza Aktiboko 10 jardunaldi antolatu zituen. Euskal Herriko zein nazioarteko adituek parte hartu zuten guztietan. Jardunaldien bitartez indarkeria eza aktiboaren eta desobedientzia zibilaren balioak indartzea bilatzen zen. Xede horrekin, Euskal Herrian bertan zein kanpoan garatutako adibide praktikoak ezagutzera eman ziren. Hori guztia aintzat hartuta, Euskadin jarduera politikoa gauzatzeko indarkeria eza baliatuko zuen aukera bat eskaini nahi zen eta indarkeriazko gatazken aurrean bide baketsuak ireki nahi ziren.

10 urteetan askotariko gaiei buruz hitz egin da, baina euskal testuinguruari berari helduta, 2002ko jardunaldietan Euskadiko indarkeria eza aktiboari buruz hitz egin zen; 2003an, bestalde, adiskidetzaren elementuei eta biktimen tratamenduari buruz hitz egin eta bizirik irten direnek eta senideek jasandako gatazka politikoaren ondorioei, burujabetzari eta desobedientziari buruz, euskara eta desobedientzia zibilari buruz, eta gatazkaren desmilitarizazioari buruz. Bestalde, 2004an landu ziren gaien

artean aipatzekoak dira: desobedientzia zibila eta giza eskubi-deak Euskadin, desobedientzia zibilaren kriminalizazioa 18/98 sumarioaren esparruan, eta desobedientzia zibilaren bitartez autodeterminazioa lortzeko moduak. 2007an herritarren ekimenei buruz eta Euskadin bakea lortzeko zailtasunei, hausnarketei eta proposamenei buruz hitz egin zen, eta 2008an *Gure gatzaren Ibilaldia* jardunaldiari buruzko kronika bat egin zen. 2011n, amaitzeko, euskal antimilitarismoaren etorkizunari buruz eta Euskadiko egoera politiko eta sozial berriari buruz eztabaidatu zen.

DEMAGUN HAUSNARKETARAKO TALDEA

2006an hasi zen lanean erakunde gisa Demagun¹¹, Euskadin ezker alternatiboaren korrante desberdinetako militante edo militante izandako pertsona batzuen ekimenez. Euskadin gertatutakoari buruz hausnartzeko beharrari erantzuna eman nahi zitzaion, eta pentsamendu eta sentsibilitate desberdinetako pertsonak elkar-tu eta elkarrekin gauzak egiteko aukera mamitzea pentsatu zen. Horrela, taldearen helburuak ziren, Euskadin burututako ekime-nak ezagutzera ematea, MLNVk egindakoez gain, memoria hori bizirik mantentzea eta bakea, elkarrizketa eta elkarbizitza lortze-ko bideak zabaltzeko lan egitea.

Demagun erakundeak erakundearen barruan zein beste eragile batzuekin lan egitean sor daitezkeen egoerazko aldaketetara eta proposamen berrietara irekita dagoen erakunde gisa definitzen du bere burua. Erakunde irekia, zeharkakoa, ezkertiarra eta progresista da eta bere postulatu nagusia indarkeria eza aktiboa da. Era berean, helburutzat du indarkeriarik gabeko ekintza bat sus-tatzea, gehiengoak berezkoa egingo duena, eta gatazkak elkar-ritzketaren bitartez konpontzeko kultura bat sortzeko lan egitea, baita herritarren parte-hartze aktiboa lortzeko eta gutxiengoen indarkeriaren edo Estatuko indarkeriaren aurrean desberdinta-sunarekiko errespetua lortzeko ere. Indarkeria eza aktiboaz gain, erakundearen oinarritzko printzipioen artean hauek aipa daitezke: senidetasuna, elkartasuna, mundu guztiak barne hartuko dituen mundu baten eraikuntza eta zoriontasuna bilatzea.

Modu horretara, Demagun taldearen helburu nagusia da ga-tazkaren amaiera lortzen eta Euskadin normalizazio soziala eta politikoa lortzen laguntzea, eta horretarako, sentsibilitate eta ideologia desberdinetako pertsonak elkartzea eta hitz egitea beharrezkoa dela uste du. Baina, garbi du taldeak, zentzu horret-an, gatazkari amaiera eman nahi bazaio, ezin direla garaileak eta garaituak bilatu, ezin dugula egiaren kontakizun bakar bat egin, eredu bat bestearen gaintik inposatzen den amaiera bat ez dela egokia, alde guztiek autokritikarik egiten ez badute ezinezkoa dela berriro hutsetik hastea.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Imanol Oroituz

Imanol Larzabal hil ondoren sortu zen Imanol Oroituz taldea -2004ko ekainean hil zen-, euskal kantautorea oroitzeko hainbat jarduera eta ikuskizun antolatzeko helburuarekin. Demagun el-kartearen ustez, Imanol Larzabal herrialde honen historian gerta-tu denaren adibidea da. Imanol, gazte zela, ETAko kide izan zen.

Beranduago, ETArri buruz hausnartu eta gero, bere militarismoa zalantzan jarri zuen eta ETA uztea erabaki zuen. Garai hartan mugimendu iraultzaile marxista leninistetatik hurbilago sentitzen zen. Franco hil eta gero, ezker abertzalera hurbildu zen, baina Yoyesen hilketaren ondoren, eta ETArri egin zion kritika aktiboaren eta publikoaren ondorioz, Ezker Abertzaletik aldendu zen eta Ezker Abertzaleak Imanolen aurka egin zuen. Egoera hura izanik, Basta Ya mugimendura hurbildu zen Imanol. Imanol hil zenean, Demagun taldean bere oroimena berreskuratzeko eta euskal gizartean *Imanol* asko daudela gogoratzeko lanari ekin zitzaion. Horrela, beraz, 2004. urtetik 2014ra bitartean, Imanol Oroituz jardunaldiak antolatzen dira Demagun-etik. 2004an izan zen lehen Imanol Oroituz jaialdia, eta lehen urte hartatik Demagun taldeak beti islatu nahi izan du posible dela gatazkan alde desberdinetan kokatutako talde desberdinetako kideekin lan egitea. Lehen urte hartatik, euskal gizartean gauzak ez direla zuri ala beltz baieztatu ahal izan da behin eta berriro, eta Imanol Larzabal Euskadin bizi izandako egoera islatzen duen adibide gisa aurkeztu da beti. Balantze positiboa egin dute erakundetik.

HAR proposamena: Parlar/Falar/Hablar/Hitzegin

HAR proposamena: Parlar/Falar/Hablar/Hitzegin pertsonen arteko topagunea eta elkarrizketa errazteko sortu zen, giza eskubideak gutxitzen dituzten gatazka guztiak elkarrizketaren bitartez, Giza Eskubideen Gutun Unibertsalean proposatutako gutxiengoa jarraituz, konpon daitezkeela dioen premisapean. Sentsibilitate desberdin guztiek parte hartu behar dute elkarrizketan, kasu honetan, Euskadin, gatazkaren konponbidea, elkarbizitza eta bakea lortu nahi badira; horrez gain, herritar guztiek parte hartu behar dute elkarrizketa horretan, izan ere, herritarrak eragile nagusietako bat dira gatazken konponbidean.

Proposamen honek parte hartzeko espazio bat ekarri zuen. 2009tik 2012ra bitartean, Euskadiko eta Espainiako Estatu-ko 300 gaztek parte hartu zuten eta Euskadiko gatazkari buruz zuten ikuspegia eta izandako bizipenak partekatu zituzten. Lau jardunaldi izan ziren guztira eta parte-hartzaileek aukera eduki zuten bertatik bertara ezagutzeko Euskadiko egoera politikoari buruzko ikuspegi desberdinak, jardunaldien baitan euskal alderdi politiko desberdinekin antolatutako topaguneei eta elkarrizketarako eta lanerako espazio bati esker. Gainera, bakearen kultura bat eraikitzeke prestakuntza eta ezaguerak zabaltzeko aukera eskaini zitzaion, Euskadin bakearen alde lan egiten duten gizarte-erakundeekin antolatutako topaguneetan. Topagune horietan gatazkek elkarrizketaren bitartez konpontzeko bideen garrantzia azpimarratu zen, baita unibertsitateko populazioarekin lan-ildo bat sortzeko beharra ere; ideia horretatik abiatuta, bakearen aldeko aktibisten sare bat sortu eta sustatu zen Estatuan.

2011ko eta 2012ko jardunaldien gai nagusia ETAk armak utzi izana izan zen. 2011tik aurrera, jardunaldien parte-hartzea zabaldu

nahi izan zen, baita zabaldu ere, eta talde handien arteko elkarrizketarako tresnak erabili ziren. Horrela, ikasleek, tresna horiek baliatuta, taldean hausnartu zuten Euskadiko bakearen eraikuntzari eta adiskidetzeari buruz, baita indarkeriarik ez zegoela kontuan hartuta, estatu-eredua aldatzeko eta elkarbizitza-modu berriak sortzeko aukerari buruz ere.

Proiektu honen bitartez, elkarrizketa bitartekotzat hartuta Euskadiko aniztasunaren irudi osoago bat eskaintzeak duen garrantzia azpimarratu nahi izan da. Adierazitako guztiaz gain, aipatutako espazioei esker, elkarren artean urrun dauden espazio sozial eta politikoetan parte hartzen duten gazteei aukera eman zaie elkarrekin erlazionatzeko eta desberdinen artean gauzak adierazteko, elkar ulertzeko eta elkar ezagutzeko, eta erlazio positiboak eraikitzeko elkarrizketak duen garrantzia ulertu dute, gainera. Gazteen artean ikuspegiak trukatzeari gain, garrantzitsua da, halaber, Espainiako Estatuko hainbat lekutatik etorritako gazteek beren bizilekuetara itzultzean helarazten dutena, esperientzia are gehiago zabaltzeko balio duelako.

DENON ARTEAN-PAZ Y RECONCILIACIÓN

Denon Artean-Paz y Reconciliación 1991n sortu zen, Donostia-ko taldea Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundetik irten zenean. Antolakuntza sortu zuten pertsona askok parte hartu zuten Euskal Herriko Bakearen aldeko Biltzarra sortzen 1986an, euskal udalerrietan tokiko zenbait taldek osatutako erakunde bat, gero, 1988an, Bakearen aldeko Koordinakundean integratuko zena. Horrela, Euskal Herriko Bakearen aldeko Biltzarra sortu zuen taldea bere jatorrira itzuli zen nolabait esatearren, 1991n Denon Artean-Paz y Reconciliación sortuta, batik bat Donostian bakearen alde ezarritako lantalde gisa, baina esparru gipuzkoarreko talde bakezaleekin harremanak zituena, eta horiekin koordinatzen zen bere ekintzak gauzatzeko.

Antolakuntza, batzar bidezkoa, hogeiki kide aktibok osatzen zuten, eta ehun pertsona inguruko sostengu sare batek. Funtsean, ikasle kolektibo bat zen, gehienak unibertsitatekoak, 20 eta 30 urte artekoak. Gutxi gorabehera zazpi urteko ibilbidean, Denon Artean-Paz y Reconciliación-ek gatazka salatzeko eta bakearen eta adiskidetzaren aldeko esparru mota askotako kontzentrazio, manifestazio eta mobilizazio kopuru handi batean hartu zuen parte. Terrorismoaren biktimekin ere lan egin zuen, zeinu desberdinetako egileen aldetik zetozen urraketak zituztenekin, entzutek eta enpatiatik horiei sostengu morala helarazteko. Horretaz gain, antolakuntzaren barruan asko teorizatu zen eta adiskidetzeko premia aldarrikatu zen, kontzeptu hori eta bere balioak modan jarrita, eta hedabideen eta euskal gizartearen eztabaida publikoan presente egotea lortuta; bazter utzitako kontzeptu bat izatetik kontuan hartutako kontzeptu bat izatera igaro zen, arbuaiatua izateko izan bazen ere.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Euskal Herria: Denon Artean jardunaldiak

1991tik 1997ra, urte guztietako Eguberrietan *Euskal Herria: denon Artean* jardunaldiak antolatu ziren, Euskadiko indarkeriari, gatazkari, eta bakeari eta adiskidetzeari lotutako zenbait gai lantzeko. Lehen edizioetako batean, topaketa publiko bat antolatu zen, jatorri desberdinetako indarkeriaren biktimekin ahaideak parte hartzaile izan zituena, eta euskal gizartean adiskidetzaren aldeko deia egin zen. Jardunaldi horrek oihartzun handia izan zuen hedabideetan, baina bazirudien gizartea ez zela heldua adiskidetzeari buruzko gaiez hitz egiteko, hala nola gorrotoa eta ezinikusia gainditzeaz, gizartea despolarizatzeko premiaz, elkarrekin bizitzeko premiaz.

Denon Artean-Paz y Reconciliación aldizkaria

Antolakuntzak aldizkari bat argitaratzen zuen artisau eran, eta gatazkari eta indarkeriari lotutako euskal gaurkotasuna analiza-

tzen zen eta bake premiari lotutako gaiak lantzen ziren hor. Aldizkariak hedapen zabala zuen antolakuntzako kideen aldetik.

Kontzentrazioak eta mobilizazioak

Denon Artean-Paz y Reconciliacion taldeak kontzentrazio isil bat egiten zuen Donostiako Gipuzkoa plazan Euskadiko indarkeria politikoari lotutako edozein heriotzaren biharamunean. Gainera, urte hasiera guztietan, aurreko urtean hil zituzten edo indarkeriaz hil ziren pertsonen zerrenda bat banatzen zen, eta izen guztiak, datak, gertaerak izandako lekua, etab. jartzen ziren. Antolakuntzak zuen ikuspegi zabalaren adibide gisa, ETAk enpresaburu bat bahitu zuen garaian zehar, informazioa eta egutegiak zituen mahai bat atera zen, enpresaburuak bahituta zenbat egun zerman gogorazten zuena eta, aldi berean, gobernuak aplikatutako terrorismoaren aurkako legearen edo presoak sakabanatzeko politikaren aurkako analisiak biltzen zituen dokumentazioa banatzen zen. Presoei dagokienez, Denon Artean-Paz y Reconciliacion taldeak presoak gizarteratzearen eta euskal espetxeetara hurbiltzearen aldeko dokumentazioa ere prestatu zuen.

Antolakuntzak bi mobilizazio garrantzitsutan hartu zuen parte: bi giza katetan, bat 1992an Vitoria-Gasteizen beste erakunde batzuekin -Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundearekin, Giza Eskubideen aldeko Elkartearekin eta Bakea Orain-ekin- antolatua. Gutxi gorabehera 6.000 pertsonak hartu zuten parte hor, euskal herritarren arteko adiskidetzeari eskatzeko, eta adiskidetzeari eszena sinbolikoak izan ziren, hala nola ETAkideen eta antolakuntzako biktimen arteko topaketak.

Denon Artean-Paz y Reconciliacion taldeak Bakearen aldeko Koordinakundearen laguntzarekin Gipuzkoako udalerririk batzuetako bakearen aldeko tokiko taldeekin antolatu zuen beste giza kateak helburu zuen Jose Angel Pardines, ETAk Billabonan hildako guardia zibila eta Txabi Etxebarrieta, Guardia Zibilak Tolosako Benta Haundin hildako etakidea hil zituzten puntuak elkartzea. Bi leku horietan eta gertakarien ondoren, 1993tik 25 urte igarota, Jorge Oteiza eskultorearen helburua zen bi obra jartzea bi pertsona horien aldeko omenaldi gisa: eskultorearen Par Movil-aren aldaera bat Etxebarrietaren kasuan, eta plaka bat zuen gurutze bat Pardinesen kasuan. Denon Artean-Paz y Reconciliacion taldeak egindako giza katearen proposamena Oteizaren bi obra horiek jartzeko inaugurazioaren barruan zegoen. Giza katea ez zen guztiz osatu, Oria ibaiko zenbait puntutan sortutako uholdeek bat egin zutelako giza katearen ibilbidearekin. Hala eta guztiz ere, katearen tarte batzuk egin ziren, hori lotzera iritsi gabe, eta puntu batean kontzentrazio bat ere bai.

EGK. EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA

EGK¹² 1986an sortu zen Eusko Legebiltzarrean onartutako 6/1986 Legearen bidez, zuzenbide publikoko entitate gisa, gazte elkartearen plataforma autonomo gisa eratua, eta bere misio nagusia da gazteriararen eskubideen alde lan egitea. Horretarako, organo aholkulariaren funtzioak betetzen ditu gazterian eragina duten politika publikoei dagokienez, eta zubi lanak egiten ditu gazte erakundeen eta administrazio publikoen artean. EGK osatzen duten hamarka erakundeak Euskadiko gizarte, kultura, hezkuntza, politika arloko... bizitzaren esparruei lotutakoak, eta horien lan arloetan garatutako partaidetza proiektuak lagungarriak dira gazterian eragina duten gaiei buruzko diskurtso publikoak eraikitzeko. Horien helburua da gazteen interesak defendatzea eta horien aldarrikapen eta proposamenen bozgorailu izatea administrazio eskudunen eta gizarte osoaren aurrean, eta gazteria politika publikoak azpimarratzea.

EGKk gazteen parte hartzea bultzatzen du gazteen bizi baldintzak hobetzeko, horien sozializazioa errazteko, gazteria politiketan eragina izateko, eta kultura propio, bizi eta anitza duen gizarte baketsu, adiskidetu, bidezko eta ireki bat eraikitzen laguntzeko. Horretarako sustatzen ditu EGKk gogoeta eta eztabaida espazioak, sentsibilizazio, prestakuntza, ikerketa, aholkularitza, posizionamendu eta salaketa ekintzen garapena, eta gizarte eragileen arteko koordinazio eta lankidetzak administrazio publikoekin eta hedabideekin.

EGKren ibilbidean zehar, euskal gazterian eragina izan duen jarduera kopuru handi bat garatu da, eta horien artean dago Euskadiko bakearen gaia. EGKk garatutako jarduerak beti izan dute zerikusia bakearen ikuspegi positibo batekin, hots, indarkeriarik gabeko bake ideia batetik harago doanarekin, eta justizia sozialari estu lotuta dagoenarekin.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Bakerako elkarrizketa eta topaketa espazioak

1992an, EGKk *Bakea Euskadin* argitaratu zuen, bakeari ekarpenak egiteko abiapuntua zen dokumentu bat. 1999 eta 2001 artean, elkarrizketa foro batzuk sortu ziren bake prozesuaren inguruan, Gernika Gogoratuz eta Elkarriren sostenguarekin, non EGKko elkarteek eta beste kolektibo batzuek gaiari buruz hitz egin zuten eta beren iritzia gizartera helarazi zituzten. Espazio horietan, Euskadiko bakeari lotutako gai zehatzez eta gazteriak bakearen eraikuntzan zuen egitekoaz hitz egin zen. 2002an amaitu zen prozesuaren ondorioz sortutako dokumentua Elkarrik Bakearen II. Konferentziarako prestatutako txostenean sartu zen.

¹² <http://www.egk.org>

Une horretatik aurrera, EGKren 2002-2006 Plan Estrategikoak bake arlo bat gehitu zuen "gizarte baketsu eta adiskidetu baten eraikuntzan laguntzea" helburu zuena; horren bidez, hainbat ekimen eta proiektu hasi ziren garatzen Euskadiko bakeari buruz. 2002-2006 Plan Estrategikoa zehaztu aurretik, zehazki 2001ean, topaketa bat antolatu zen Estatu osoko gazte erakundeekin, *Euskal Gatazka Hurbil* izenekoak, euskal egoera hortik kanpoko pertsonen hurbiltzeko helburuarekin. Esperientzia hori 2007an errepikatu zen *Euskadi hurbilago* izenarekin, eta printzipio eta helburu berak zituen. 2007an ere, EGKk bake foro batzuk antolatu zituen, *Guk ere badugu zer esanik bake prozesuan* izenekoak, gazteek bakerako egin ditzaketen ekarpenekiko eta prozesuan dituzten zereginarekiko arreta erakartzeko.

Bakeari eta elkarrizketari buruzko adostasuna

2008ko abenduko *Hizpideak* aldizkariaren 3. zenbakian, EGKk ordua arte bakearen inguruan garatutako bere ekimenak aurkeztu zituen. Argitalpen horretan bakeari, elkarrizketari eta bakerako hezkuntzari buruz adostutako ideia batzuk aldarrikatu ziren. Bakeari buruz aurkeztutako ideia bakearen ikuspegi positiboari eta negatiboari buruzkoa zen, eta duintasunaren, askatasunaren eta bizitzaren balioek sostengatutako bake batean oinarritzen zen. Gatazka helburuen bateraezintasunari lotzen zaio, eta horrek gutxitu egiten du gizartea eraldatzeko eta hobetzeko erabilgarri izateko ahalmena. Halaber, indarkeriaren ikuspegi bat aurkeztu zen, agresibitate naturalaren endekapen gisa eta gizakiari datzekiona.

Elkarrizketari dagokionez, oinarrizko tresnatzat hartzen da arazoak eta gatazkak konpontzeko elkarrekiko ekarpenetik eta aberastetik, baldin eta elkarrizketa segurtasun baldintzetan eta bortzarik gabe egiten bada. Horrez gain, azpimarratzen da elkarrizketa foro anitzak espazio egokiak dira ikasteko, jakiteko, aldeak berdintzeko komunikazio eraginkorren, entzutearen eta enpatiaren bidez, eta batik bat bizikidetzarako ideiak eraikitzeko, puntu komunak eta soluzio konpartituak lortzeko aukera ematen duelako.

Egungo ekimenak Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Planaren babesean

EGKk Bake eta Bizikidetzaren Planaren balorazioan parte hartu zuen, bakeak Euskadin dituen erronken aurrean gazteriak gara dezakeen zereginari dagokionez, bai geroari, bai orainari eta iraganari dagokienez. Horrela, Bake eta Bizikidetzaren Planaren 17. jarduketa programan, garatu beharreko 4 proiektu handi adostu dira, eta hiru deskribatuko dira. Lehenik, espazio ireki bat sortu nahi da gai horien inguruko bizipenak konpartitzeko. Hortik sortu zen *Bakeahots* ekimena: komunitate birtual bat, non gazteek bakerako beren ideiak adieraz ditzaketen nahiago duten hizkuntza erabilita: idatzia, artistikoa, piktorikoa, fotografikoa... Horrek aberastasuna, originaltasuna eta sormena ematen dizkio esparru honetan

gazteen memoria eraiki nahi duen espazio birtual horri. Gainera, *Bakeahots* EGKren lan esparru honetako beste jarduera batzuen informazio eta hedapen plataforma bihurtzen ari da.

Bestetik, prestakuntza saio espezifikoak antolatu dira gatazken konponketaz, giza eskubideez eta adiskidetzeaz, *Gazteak biolentziaren aurrean: bizikidetza sustatuz - La juventud ante la violencia: fomentar la convivencia* izenekoak. Jardunaldi horiek 2014an egin dira EAeko hiru hiriburuetan Bakeolarekin eta Gernika Gogoratuz-ekin batera, unibertsitateetan eta EGKko erakundeetan bertan eskaintzeko asmoz. Helburua da gizarte ehuna ber-eraikitzen laguntzea, gogoeta bat errazteko indarkeriaz eta horren erabilez, hori bizi izan den moduz, eta gure egungo egitura psikologikoa baldintzatzen duen moduz. Hori guztia topaketarako, elkarrizketarako, gogoetarako espazio seguru bat konfiguratuta, non gazteak diren benetako protagonistak.

Azkenik, *Bake Ibilbideak* bakearen hiru denbora ardatzak -iragana, oraina eta geroa- lantzeko ekimen bat da, eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan irudikatzeko, hiria hiru ardatz horietatik ezagut daitekeen espazio bihurturik. Hirietako leku batzuetan gogoetarako eta elkarrizketarako espazioak sortu ziren hiru ardatzei buruz. Prozesu horietan ez dira sortu nahi eztabaida edo akordio puntu formalak, baizik hirian zehar egindako ibilbideen bidez eta horko puntu estrategikoetan taldeko solasaldi dinamizatuak eta ekintza zehatzak sustatuko dira, parte hartzaileek hitz egindakoari buruz egindako gogoeta erakutsiko dutenak. Gainera, asmoa da puntu eta puntu artean elkarrizketak sortzeko aukera izan dadila hiru ardatzetakoren bati buruz bikoiteetan edo talde txikiagoetan, harreman hurbilagoak edo estua-
goak eraikitzeko.

ELKARRI

Elkarri¹³ gizarte mugimendu anitza eta independentea izan zen, elkarrizketaren eta akordioaren aldekoa, 1992an sortu zena euskal gatazka konpontzeko eredu baketsu eta elkarrizketatu bat defendatzeko eta mobilizatzeko. Bere gizarte oinarrian jatorri politiko, sozial eta kultural desberdinetako pertsonak zeuden, indarkeriarik eza, elkarrizketa eta giza eskubideak defendatu zituztenak herri ekimen ugariren bidez. Elkarriren lehen etapak, 1992 eta 1994 artean, gizarte mugimenduaren oinarria jartzeko balio izan zuen. 1994ko maiatzaren eta 1996ko maiatzaren artean, Elkarri bere gizarte sostenguak eta bere proiektuaren oinarri teorikoa finkatu zituen, arreta Irlandak eskaintzen duen eremuan jarrita eta I. Bake Konferentzia antolatuta. Geroago, *Izan* proposamenean jarri zuen arreta, hots, negoziazio baten eta bake prozesu baten alderdi konplexuagoak konpontzeko balizko aukera bati buruzko azterlanean. 1998ko irailean hasitako ETaren su etenean zehar, bake prozesu batek behar dituen jarrerak zabaltzen eta prestatzen jardun zuen. ETAk su etena apurtutakoan, Elkarri bake prozesu elkarrizketatu bat sortzeko adostasun metodo bat definitu zuen, II. eta III. Bake Konferentzietan eszenaratu zena.

Elkarriren motibazio nagusia izan zen sufrimenduaren eta giza eskubideen aurkako indarkeriaren amaieran laguntzea, eta elkartasun aktiboa sustatzea biktima guztiekin. Gainera, bake eta bizikidetzaren normalizatu bat lortu nahi izan zuen Euskadin, askatasunean, berdintasunean, aniztasunean eta oinarritzko adostasunean oinarritua. Elkarri uste zuen nahitaezkoa zela elkarrizketaren balioa sartzea Euskadiko gatazkaren eta indarkeriaren testuinguruan, egoerari irtenbideak emateko gako zelako eta kontzeptu hori diskurtso politikotik kanpo zegoelako. Bestetik, erakundeak herritarren bakearen aldeko parte hartze bat erraztu zuen, indarkeriaren gaitzespena jendaurrean adieraztetik harago zihoana, herritarrak elkarrizketaren sustapenaren eta diskurtso politikoa-
ren eraikuntzaren zati izan zitezela. Gainera, Euskadiko bakerako nazioarteko sostengu sare bat garatzea ere erraztu zuen, eta urte askoan lanean eman ondoren, Aieteko Konferentzian gauzatu zen.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Bake Konferentziak

1995 eta 2005 artean, Elkarri hiru Bake Konferentzia egin zituen. 1995eko martxoan egin zen lehenengoaren aurreko bi hiletan, mobilizazioak, bakearen aldeko topaketa parte hartzaileak eta herritarren sostengu handia, jasotako milaka sinaduren bidez adierazia, izan ziren. *Autogobernua, subiranotasuna eta autodeterminazioa*,

akordiorako proposamenak izenarekin, bake konferentziaren helburua zen euskal alderdi politiko guztiak biltzea eta elkarrizketaren eta akordioaren aldeko ikuspegi sozial eta politiko baten eraikuntza bultzatzea. Topaketan Eusko Alderdi Jeltzaleko, Eusko Alkartasunako, Ezker Batuko, Herri Batasunako eta Unidad Alavesako kideek hartu zuten parte, baina ez Alderdi Sozialistakoek eta Alderdi Popularrakoek.

II. Bake Konferentziak prozesu izaera handiagoa hartu zuen. 2001eko urrian ekin zion, gizarte sostengua biltzen eta euskal eragile sozial eta politiko batzuekin harremana ezartzen urtebete eman ondoren, eta 2002ko urrian amaitu zen. Konferentzia *Hitzza*, *Liburua*, *Dossiera* eta *Folia* izeneko 4 proiektutan egituratu zen. Lehenengoak berdintasun kontzeptua hedatzea aurreikusten zuen bake prozesu baten oinarritzko printzipio gisa; bigarrenak eztabaida programa zabal bat garatu zuen 13 solasaldi/mahai ingururen bidez, eta horietatik *Bakeak egiteko gakoak* liburua atera zen. Hirugarren proiektuak herritarren parte hartzea sustatu zuen eta ekarpen indibidual eta kolektibo ugari ekarri zituen. Horietatik bakea eraikitze lagungarri ez denari buruzko printzipio batzuk atera ziren, aldatzeko borondateaz eta elkarrizketaren eta akordioaren premiaz; bake asmoak gauzatzean oinarritutako prozedura batzuk, giza eskubide guztien errespetuari, bazterkerik gabeko elkarrizketari eta parte hartzeko eskubideari buruz eta, azkenik, adostasun batzuk giza eskubideei, elkarrizketari eta aniztasunari, eta berdintasunari eta printzipio demokratikoei buruz. Proiektu horretatik ateratako dokumentuan lehentasunezko zat jotzen dira indarkeriaren amaiera eta elkarrekiko berme akordio bat, bizikidetzaren esparru bat ezartzeko.

Azkenik, laugarren proiektuaren helburua zen akordio anitz bat lortzea indar politikoaren artean, bake prozesu baten printzipioei eta prozedurei buruz. Horretarako, elkarrizketa prozesu bat ezarri zen alderdi politikoek izendatutako pertsonen artean, gai jakinei buruz elkargunea errazteko, eta dokumentazioa sortu zen honelako gaiei buruzko ekarpenekin: Espainiako 1978ko Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria erabiltzea, subiranotasunaren interpretazioa, euroeskualde baten eraikuntza, giza eskubideak, biktimak, presoak, torturak, etab., hori guztia diskurtso guztiak bateragarri egiteko eta alderdiak hurbiltzeko aukera izateko helburuarekin.

Konferentziako azken dokumentuan horko lorpenak aurkeztu ziren, hala nola bakea eraikitzeko jasotako nazioarteko sostengua edo elkargune politikoa erraztu izana, Bake-Bidea proposamena ekartzeaz gain. Hor, bakearekin konpromiso nabari baten premiaz hitz egiten da; gehiengoaren iritziekiko errespetu esparru bat ezartzeaz eta indarkeriarik ezaren, akordio anitzaren eta gizarte berrespenaren printzipioen arabera jokatzeko eta, azkenik, elkarrizketa metodo zirkular, ireki eta malgu bat ezartzeko beharraz, alderdien foro baten oinarriak ezartzeko, hor akordioetara iristeko, eta dena herritarren konpromisoaren eta nazioarteko sostenguen babespean.

Bestetik, III. Bake Konferentzia Eginoko Mahaiaren ingurukoa da, non CDNko, Nafarroako Ezker Batuko, PSNko, PSEko, EAJko, Aralarreko, EAKo, Ezker Batuko kideek eta PPren inguruko independente batek 13 topaketa egin zituzten 2004ko maiatzaren eta 2005eko maiatzaren artean, norberaren izenean parte harturik. Egindako lanaren ostean, espazio komun bat sortzeko aukera aipatu zen, lau joko arauk markatua: “indarkeriarik gabe” eta “bazterketarik gabe”, “erabakitzeko ahalmena” eta “ituna egiteko betebeharra”, idatzitako azken dokumentuko edukien oinarri izan ziren oinarrizko lau printzipio demokratikorekiko errespetuan txertatzen diren lau konpromiso, hala nola giza eskubideak, aukera guztiak barnean hartzea, herriaren borondatea eta aniztasuna. Azken dokumentuan lehen akordio bat eskaintzen da adostasun eta desadostasunen esparru orokor bati buruz; bigarren akordio bat elkarrizketa prozesu bat garatzeko, eta hirugarren bat lehen adostasun politiko bat lortzeko oinarri bideragarriak planteatzeko, xedapen hauen inguruan: Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria, Forua Hobetzeko Legearen lehenengo gehigarria, eta Gernikako Estatutuaren gehigarri bakarra, eta herritarrei kontsultatzean oinarritutako legitimotasuna.

Eginoko Mahaiarekin batera, tokiko partaidetza taldeen proiektu bat gauzatu zen, parte hartze sozial aktibo eta eraginkor bat errazteko, lagungarri izango litzatekeena indarkeria arazoei, politikoei eta bizikidetzakoei soluzioak sortzeko euskal gizartean. Prozesuan zehar, tokiko partaidetzako 56 talde sortu ziren, eta parte hartzeko eta elkarrizketarako 200 espaziotik gora egin ziren. Talde horiek lau bilerako prozesu bat jarraitu zuten, eta konfiantza sortu zen nahi zen etorkizun bat bistartzeko, horretarantz nola joan zitekeen ikusteko eta oinarrizko adostasunak lortzeko proposamen zehatzei buruz. Eraitza agerienak izan ziren indarkeriari amaiera emateko premia, elkarrizketa politikoa bideratzea, parte hartze sozial zabala erraztea eta bake kulturaren printzipioak eta balioak sustatzea.

Mobilizazioak eta nazioarteko sostengua

Bere ibilbide osoan zehar, Elkarrik manifestazio herritarrak deitu eta sostengatu zituen bakearen eta bizikidetzaren alde eta indarkeriaren aurka, eta bere diskurtsoan elkarrizketaren eta akordioaren alde agertu zen. Gainera, nazioarteko dimentsioa gehitzen die bere diskurtsoei, sostengu sare bat sorturik, Euskadin bakearen eraikuntza sostengatzen duten jatorri desberdinetako pertsona garrantzitsuek osatutakoa, eta aukera ematen diona Lokarrik koordinatutako 2011ko Aieteko Konferentzian amaitu zenari.

Argitalpenak

Elkarrik dokumentazio kantitate handia sortu zuen, eta horrekin diskurtso bakezaleak eraikitzen lagundu zuen Euskadin. Nabarmentenak dira Bake Konferentziari buruzko dokumentuak edo *Elkarri* aldizkariaren 123 zenbakiak, non hilero argitaratzen ziren erreportajeak, iritzi artikulak, elkarrizketak eta lekukotzak gatazkari, indarkeriari eta Euskadiko bakearen eraikuntzari buruzko gai nagusiei buruz. Bestetik, *Eraikikasi* eta *Elkarrikasi* bildumek bake kulturaren hainbat elementuren berri eman zuten monografiak eta prestakuntza eta dibulgazio koadernoak bidez, hurrenez hurren. Gainera, Elkarrik hileko informazio buletin bat argitaratu zuen, elkarrizketaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren aldeko ekimenei buruz informazioa eta sostengua ematen zituena.

GIZA ESKUBIDE ETA BAKE HEZKUNTZAREN ELKARTEEN FOROA

2007ko martxoan osatu zen Euskadiko Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkartearen Foroa¹⁴, Euskal Autonomia Erkidegoko arloko erakundeak biltzeko espazio gisa. Hastapenetako helburua, herritarrengandik hurbil zegoen foro gisa sendotzea zen, aniztasuna aintzat hartuta bakearen kultura sendotzen eta giza eskubideak sustatzen laguntzeko. Foroak egiten duen lanaren balio nagusiak hauek dira: giza eskubideen defentsa eta sustapena, eskubideen urratzea gaitzestea eta pairatzen dutenenganako elkartasuna, bakerako hezkuntza, indarkeriarik eza, bizikidetzaren aniztasunean, elkarrizketa eta memoria anitz eta bateratzaile bat sustatzea eta edonolako indarkeriari zilegitasuna kentzea eta gaitzestea.

Foroa kide anitzek osatzen badute ere, guztiek bakearen kulturaren eta giza eskubideen balioak dituzte komunean. Foroa osatzen duten kideei dagokienez, Foroak gogoetarako eta aholkularitzako espazioak eta baliabideak eskaintzen dizkie, eta, era berean, elkartearen artean sinergiak sortzen dira. Forotik elkartearen arteko harremanak indartu nahi dira, eta horretarako, helburuak, balioak eta proiektuak hurbildu edo bateratu behar direla uste da. Bien bitartean, kanpora begira, gizarte eta hezkuntza gogoetarako espazioak sustatzen ditu eta bakearen eta giza eskubideen balioak zabaltzen ditu, indarkeriarik ezaren eta bizikidetzaren baketsu eta demokratikoaren kultura sustatzeko helburuarekin. Bestalde, erakundeek aholkularitza ematen zaie eta giza eskubideen, bakearen eta memoriaren arloetara bideratutako ekimenak lantzeko eta garatzeko laguntza ematen zaie, era berean. Foroak landutako azken lan planean -2013/2014-, jarduerak sortzeko beharra aurreikusi zen, Foroaren eragin politikoa eta gizartekoa indartzeko, bai eta erakundeek laguntzeko eta parte hartzeko eta hausnartzeko espazioak sortzeko ere.

Foroak hainbat dokumentu eta komunikatu argitaratu ditu, eta, besteak beste, honako hauek azpimarra daitezke: *Udalerririk bizikidetzaren alde*, *Bizikidetzaren erronkak* eta giza eskubideen urratzea jasan duten biktima guztien ordain integralaren aldeko deklarazio bat aurkeztu du, halaber.

Gaur egun, erakunde hauek parte hartzen dute Foroan: Amnistía internacional, Geuz, F. Fernando Buesa, Eraldatzen, Zinhezba, UNICEF, Unesco Etxea, Sendia, Músicos Solidarios Sin Fronteras, Gernikako Bakearen Museoa, Lokarri, Jesús María Leizaola Elkargoa, Izan Elkartea, Itaka Escolapios Fundazioa, Ikertze, Gernika Gogoratuz, FECAPP, Euskal Herriko Eskautak, Eurocampus Elkartea, Herriaren Europa Institutua, EHGAM, Bakeola, Bachué, Asmoz Fundazioa, APSIDE, ALDARTE eta AIZAN.

Giza Eskubideak eta Bakearen Eraikuntza Euskadin

2011ko martxoaren 24, 25 eta 26an Foroak Euskadiko giza eskubideei eta bakearen eraikuntzari buruz hausnartzeko mintegi bat antolatu zuen, guztien ahalegina bateratu eta bake, giza eskubide, memoria, egia eta adiskidetzeari buruz hausnartzeko espazio bat eskaintzeko helburuarekin. Lau multzotan antolatu ziren jardunaldiak, Foroaren lau lan arloekin bat etorriz, hain zuzen ere: prestakuntza eta gaikuntza, politika publikoak, bizikidetzaren toki mailan eta nazioarteko ikuspegia.

Nola lagun dezakegu Euskadin bizikidetzaren hobetzea?

2012ko urtarrilaren 26an Foroak elkarrizketa jardunaldi bat antolatu zuen, Euskadin bizikidetzaren hobetzea laguntzeko moduei buruz hausnartzeko. Elkarrizketa espazio horretan Open Space Technology elkarrizketa tresna erabili zen eta euskal esparru politiko, sozial eta akademikoko 50 lagunek inguruk parte hartu zuten. Jardunaldian bizikidetzaren hobetzea beharrezko inguruetan askotariko elkarrizketa espazioak sortu ziren. Besteak beste, kontzientziaren tratamendua komunikabideetan, eragindako kaltea jendarean aitortzea, politika publiko adostu bat eraikitzeko beharra edo memoriaren eraikuntza landu ziren espazio horietan.

Bizikidetzaren erronkak mintegia

Orain aurkezten den mintegia Bilbon antolatu zen 2012ko azaroaren 22an, *Nola lagun dezakegu Euskadin bizikidetzaren hobetzea?* Open Space delakoari jarraikotasuna emanez. Aipatutako mintegian lau lan espazio bereizi antolatu ziren, bizikidetzaren erronka ikuspegi desberdinetatik aztertzeko. Zentzu horretan, hezkuntza, aisia, toki maila eta komunikabideak izan ziren espazioetan bereizitako esparruak. Espazio bakoitzean bizikidetzaren demokratiko eta indarkeriarik gabeko bat eraikitzeko bidean esparru bakoitzari dagozkion erantzukizunei buruz hitz egin zuten, baita bide horretan sor daitezkeen zailtasunei eta beharrei buruz ere. Besteak beste, espazio bakoitzarekin lotutako proposamenak sortzea izan zen mintegiaren helburu bat; proposamen horiek hainbat elkarte eta erakundetara bidali ziren ondoren.

Bizikidetzarako bost eremu

2013ko urriaren 2an *Bizikidetzaren erronkak* dokumentua aurkeztu zuen Foroak eta, horrekin batera, *Bizikidetzarako bost eremu* ekimena abian jarri zuen; modu horretara, jarraipena eman zitzaion alde aurretik hasitako lanari. Ekimen hau hausnarketarako bost eremu gauzatzean datza, bizikidetzaren, bake eta giza eskubideen inguruko funtsezko gaiak buruz hausnartzeko; izan ere, euskal gizarteari aipatutako gaien inguruan egindako hausnarketa helara-

zi nahi zaio. Hauek dira, beraz, bost eremuak: hezkuntza, udalerria, eremu politiko-instituzionala, elkarteak eta komunikabideak.

Urriaren 2an jarri zen martxan eremu politiko-instituzionala, eztabaida politiko baten eskutik. Eztabaida hartan EAJ/PNV, EH Bildu, PSE, PP, UPyD, Ezker Anitza eta Equo alderdi politikoetako kideek parte hartu zuten.

Beranduago, 2014ko urtarrilaren 27an, *Bizikidetzak: zuengandik ikasi, elkarrekin hobetu* izeneko topagunea antolatu zen. Hezkuntza esparruko topagune dinamikoa eta horizontala izan zen. Topagunearen helburua izan zen bizikidetzari buruzko lan esperientziak ezagutzera ematea ikastetxeetan, baita lan hori hobetzeko aukerak eta bideak aztertzea ere.

2014ko otsailaren 13an eta azaroaren 5ean bi mahai inguru antolatu zituen Foroak, Euskadiko bakearekin lotura estua zuten alderdiei buruz hausnartzeko. *Legeria antiterrorista eta espetxe politika* eta *Euskadin jasandako tortura* izan ziren mahai inguru haietan landutako gaiak.

Gizarte topagunea Berrizen

2014ko urriaren 22 eta 23an, Foroak topagune bat antolatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Bakerako eta Bizikidetzarako Planean eskatzen diren hiru "mikro akordioei" buruz hausnartzeko eta hitz egiteko. Mikro akordio horiek, iraganari buruzko ondorio bateratuak lortzeko, gaur egungo gure errealitatearen normalizaziorako eta etorkizunerako oinarri etikoak eta aurre politikoak ezartzeko akordioak dira. Topagunean Euskadin bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen esparruetan lan egiten duten elkarte eta erakunde askotako kideek parte hartu zuten eztabaidan eta elkarrizketan.

ETIKARTE FUNDAZIOA

2011n sortu zen erakunde zibil bat da Etikarte¹⁵ Fundazioa eta helburutzat du gizarteko arazoei ikuspegi etiko batetik erantzutea. Donostiako Elizbarrutiaren Gizarte Idazkaritzaren Justizia eta Bakea mugimendutik zetozen hainbat lagunek sortu zuten, irizpide askatasuna ziurtatuko zuen erakunde bat osatu nahi baitzuten, gizarte zibilaren askotariko arazoen aurrean erantzun etiko bat emateko helburuarekin. Hainbat lan talde antolatu dira Etikarteren barruan eta horietako bat da Etiker; berari dagokio Euskadiko bakea eta bizikidetzaren ikuspegi etiko batetik aztertzea, Justizia eta Bakea-n alde zuzenetik egindako lana abiapuntu hartuta.

Etikartek irizpide etiko batzuk sendotu nahi ditu eta irizpide horiek oinarrian hartuta, bizikidetzaren eta euskal gizartearen ehuna berreraikitze beharra sustatzea bilatzen du, baita gizartean bakearekiko eta justiziarekiko kezka, orokorra zein euskal testuingurura lotuta, sustatzea ere, betiere kontuan hartuta gaur egungo balioen krisiak Euskadiko indarkeriaren testuinguruan duen garrantzia. Abiapuntu horri helduta, Etikartek hainbat lan espaziotan parte hartu du beste erakunde batzuekin batera.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Artikuluak prentsan eta *Vivir juntos en Paz. Hoy-Aquí - Elkarrekin Bakean Bizi. Gaur-Hemen* liburua

Etikartetik, eta Justizia eta Baketik lehenago ere, artikulu ugari argitaratu dira prentsan, bizikidetzarekin lotutako hainbat alderdiri buruz; betiere, ikuspegi etiko batetik idatzitako lanak izan dira. Gaur egun, hilean artikulu bat argitaratzen da.

Durangoko 2014ko Euskal Liburu eta Disko Azokan aurkeztu zen Etikarte Fundazioak argitaratutako *Vivir juntos en Paz. Hoy-Aquí - Elkarrekin Bakean Bizi. Gaur-Hemen* liburua. Justizia eta Bakeak eta Etikartek ikuspegi etiko batetik idatzita dituzten bizikidetzari eta bakeari buruzko artikulu guztiak jaso dira aipatutako liburuan.

Etikarte ikastaroak eta hitzaldiak

Etikartek urtero 5 hitzaldik osatutako ikastaro bat antolatzen du, Euskadiko bakeari eta bizikidetzari buruz. Bertan, makina bat pertsonak parte hartu dute ikastaro horietan eta bakearekin eta bizikidetzarekin erlazionatutako alderdi desberdin asko aztertu dituzte, ikuspegi akademiko, sozial, etiko eta erlijioso batetik. 1979an José María Setién Donostiako gotzain izendatu zutenetik antolatu dira hitzaldiak.

¹⁵ <https://etikarte.wordpress.com/>

Bestalde, Etikartek hitzaldiak antolatu ditu udalerrri askotan, adibidez, Eibar, Errenteria, Zaldibia, Lasarte-Oria edo Ataunen. Hitzaldietan bakeari, bizikidetzari eta gizarte ehunari buruz hitz egin da, ikuspegi etiko batetik beti. Hitzaldi horiei esker, udalerrri desberdinetako herritarrekin bizikidetzak eta adiskidetzeak dakartzaten erronka etikoei buru hitz egiteko espazioak sortu dira; besteak beste, justizia, bakea, elkartasuna, demokrazia edo memoria gisako ideien inguruan ikuspegi partekatuak lortzeko beharra azpimarratu da.

FERNANDO BUESA BLANCO FUNDAZIOA

Fernando Buesa Fundazioa¹⁶ 2000ko azaroan sortu zen, urte bereko otsailaren 22an Euskadiko Alderdi Sozialistako kide zen Fernando Buesa eta Jorge Díez bere eskolta hil eta gero. Fernando Buesaren familiaren eta inguruko pertsonen ekimenez sortu zen erakundea, Fernando Buesak bere zeregin politikoaz haraindi utzitako legatua bizirik mantentzeko xedearekin.

Hasieratik, Fernando Buesak erakutsitako ikuspegi bateratzailea eta elkarriketarako irekia izan ziren erakundearen oinarriak: berak argi zuen gizarte-aurrerapena lortzeko lan egin behar zela, bakean elkarbizitzeko etengabe lan egin behar zela, politikagintza zerbitzu publiko bat zela edo aniztasuna defendatu behar zela, baina, betiere, helburuak lortzeko bitarteko baketsuak eta demokratikoak bakarrik erabili zitezkeela ere argi zuen, hala nola elkarriketa edo bestearekiko errespetua. Fernando Buesa Fundazioa erakunde parte-hartzaile eta anitz bat da eta gure herrialdearen ikuskera baketsu batekin bat egiten duten sentsibiltate eta alor guztietara irekita dago. Bizitzeko eskubidea, duintasuna, justizia eta askatasuna dira, beste batzuen artean, erakundeak defendatzen dituen balio demokratikoak.

Besteak beste, gertatu denaren eta biktimen memoriaren alde lan egitea du helburutzat Fundazioak, eta horretarako, indarkeriari zilegitasuna kentzeko lan egin du, hau da, urteetako indarkeria justifikatu ezin daitekeela aitortzeko bideak errazteko. Horrez gain, giza eskubideen balioa indartzeko ere lan egin du eta balioen hezkuntza eta bakerako hezkuntza sustatzeko ere bai. Aipatutako Fundazioaren lan-ildo horiek guztiak Fundazioak berak egindako argitalpen ugarian islatu dira.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

In Memoriam, Fernando Buesa eta Jorge Díez

Fernando Buesa bere eskolta Jorge Díezekin batera hil zuten eguna gogoratzeko urtero egiten den omenaldi-ekitaldia da *In Memoriam*. 2001etik 2014ra urtero antolatu izan da *In Memoriam*, eta guztietan (12 izan dira), Fernando Buesa eta Jorge Díezen omenezko lore-eskaintza egin da eta biak gogoratzeko hitzak entzun dira omenaldi formalaren barruan, eta hortik kanpo, lanean jarraitu da. Horrela, *In Memoriam* elkartzeko eta hausnartzeko espazio bihurtu da eta gizarte- eta politika-alor desberdinekin erlazionatutako pertsona ezagunekin eta esparru politiko, sozial zein kulturaleko pertsona ezagunekin hainbat gairi buruz hausnartu da, hala nola demokrazia, giza eskubideak, elkarbizitza, elkarriketaren zeregin, etorkizunaren eraikuntza eta iraganaren oroitzapena.

¹⁶ <http://www.fundacionfernandobuesa.com/>

Fernando Buesa Mintegiak

2002tik Fernando Buesa Blanco Fundazioak hainbat mintegi antolatu ditu Euskadiko egoera politiko eta sozialarekin erlazionatutako gaiei buruz. Aipatutako mintegiak burutzeko, EHUrekin, *Valentin de Foronda* Gizarte Historiarako Institutuarekin eta Bakeaz erakundearekin batera lan egin da. Gogoeta-foro anitzak direla esan daiteke: hainbat gairekin erlazionatutako alderdi desberdinei heldu zaie eta ideiak eta ikuspegiak trukatzeko bideak erraztu dira, betiere helburu nagusia elkarbizitzarako eta giza eskubide guztien errespetuaren aldeko ekarpenak egitea izan delarik. Aipatutako aniztasunari dagokionez, politikoki, sozialki zein akademikoki ikuspegi desberdinak dituzten pertsonen gain, jatorri desberdinetako biktimek ere parte hartu dute orain arte antolatutako edizioetan, baita ETAn jardun duten pertsonen ere. Zentzu horretan, oso garrantzitsua izan da ETako kide izandako pertsona batek, biktima baten ondoan eserita dagoela, bere damua agertzea indarkeria erabili izanagatik.

Antolatutako 12 edizioetan, EHUko udako ikastaroetan zein antolatzaileen ikastaro autonomo gisa egin direnetan, askotariko gaiei buruz hitz egin da, besteak beste: balio demokratikoak eta elkarbizitzarako balioak Euskadin, memoria eta historia iraganari heltzeko tresna gisa, indarkeria kolektiboak osasunean duen eragina edo euskal gizartearen zeregina terrorismoaren aurrean.

Gizarte Gogoetarako Jardunaldiak, Topaketak/Encuentros eta Memoriari eta terrorismoaren biktimei buruzko topaguneak

2001etik 2009ra urtero antolatu ziren Gizarte Gogoetarako Jardunaldiak, euskal herritar guztiei demokraziak eta zuzenbide-estatutuak gaur egun dituzten erronka nagusien aurreko sentsibilitate eta jarrera desberdin guztiak ezagutzeko aukera eskaintzeko helburuarekin, modu horretara, errealitatearen ikuspegi poliedriko bat osatu ahal izateko.

2005etik 2010era Fernando Buesa Blanco Fundazioak eta Aldaketa/Cambio por Euskadi erakundeak hainbat *Topaketak/Encuentros* antolatu zituzten. Topaketa horietan, alor eta diziplina desberdinetako adituek parte hartu zuten eta kasuan-kasuan aztertu beharreko gaiei buruz zituzten iritziak azaldu zituzten. Antolatu diren topaguneetan, terrorismoaren biktimen esanahi politikoa eta gizartean eta politikan duten agerpena, ETApn-ren desegitearen argiak eta itzalak eta terrorismoari zilegitasuna kentzeak duen esanahia moduko gaiak aztertu ziren. Bestalde, topaketetan aurkeztutako txosten guztiak argitaratu ziren, landutako ideiak ezagutzera emateko.

2009tik 2010era, Bakeaz erakundearekin eta Deustuko Unibertsitateko Etika Gelarekin lankidetzan, bi topaketa egin ziren memoriari eta terrorismoaren biktimei buruz. Topaketa haietan, ezkerretik eragindako indarkeriarekin, XX. mendeko pentsamendu

europarrarekin eta Euskadiko terrorismoaren biktimekin lotutako gaiak landu ziren.

Dokumentazio Zentroa eta Zoomrights

Fernando Buesa Blanco Fundazioaren Dokumentazio Zentroan liburutegi txiki bat antolatu da. Fundazioaren lan-ildoei buruzko liburu eta dokumentuez gain, online espazioa bat du. 7.500 artxibo daude espazio horretan eta horietatik 3.000 kontsulta daitezke, gaur egun. Terrorismoaren biktimen legetik hasita, talde terrorista guztiek (ETA, GAL, Batallón Vasco-Español, AAA eta abar) 1960tik egindako indarkeriazko ekintzei buruzko albisteen artxiboak jaso dira bertan. Horren helburua da hilketak, hilketa-saiakuntzak, bahitzeak eta abar barne hartuta, gertatu zena azalertzeko eta ezagutzera emateko. Xede horrekin, indarkeriazko ekintzen ondoren prentsan agertutako albisteak jaso dira, baita biktimek iraganeko gertaerei buruz gaur egun eman dituzten testigantzak ere, indarkeriak pertsonen bizitzan izan duen eragina ezagutzera emateko. Prentsa albisteak bildu dira, hortik abiatuta ekintza guztien taula bat osatzeko.

Bestalde, *Zoomrights*-en eragile desberdinek eragindako terrorismoaren biktimen 50 testigantza jaso dira. Atentatua gertatu aurretik zuten bizitzari buruz hitz egiten dute, jasandako ekintzari buruz eta eragin zizkion ondorio fisiko edo psikologikoei buruz ere bai eta abar... Elkarrizketak web-ean aurkezteko, pertsonaren kontakizuna islatzen da, bere bizitza pertsonala eta indarkeriak eragin dizkion ondorioak ardatz hartuta.

LEIZAOLA ELKARGOIA

1997an sortu zen Leizaola Elkargoa¹⁷ eta 2009an fundazio bihurtu zen. Xede nagusitzat du Euskadiko gazteen artean euskal kultura eta bakearen eta bizikidetzaren balioak sustatzea. Horretarako, oinarrizko ekimenetatik abiatuz, hiru lan-arlo bereizi ditu eta horien inguruan multzokatu dira gizarteak gaur egun dituen erronkak: Euskara eta Kultura, Berdintasuna eta Gizarteratzea eta Bakearen Kultura. Leizaola Elkargoan argi dute elkar ezagutzea eta ulertzea ezinbesteko baldintza direla, baldin eta bakea eraiki nahi bada, gizarte mailan zein ekonomikoki aurrera egin nahi bada, eta elkartasuna, berdintasuna eta giza duintasunarekiko errespetua garatu nahi badira. Elkargoak egiten duen lana gazteenganazuzentzen da nagusiki eta, batez ere, arreta berezia jartzen du goi mailako ikasketak egiten dituzten gazteengan; eta horiei guztiei euskal kulturaren eta kultura euskaldunaren berezko elementuak eta bakearen eta giza eskubideen balioak helarazteko lan egiten du. Gazteekin lan egitean, gazteek euskal gizartearen errealitate sozialari eta politikoari buruzko ikuspegi zabal bat ezagutzea lortu nahi da, eta, horren bitartez, giza eskubideak protagonista izango dituen gizarte aldaketa batean eragile aktibo bihurtu nahi dira gazte horiek.

Horrela, Leizaola Elkargotik jarduera ugari garatu dira giza eskubideak ezagutzera emateko eta sustatzeko, hainbat gairi buruzko mahai inguruetatik hitzaldietara, eta haur lehiaketak edo bidaiak Europan zehar, gazteek Europako erakundearen funtzionamendua ezagutu dezaten.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Bake Bidean

Leizaola Elkargoak Bake Bidean jardunaldien 14 edizio antolatu ditu, bakearen kultura eta giza eskubideak sustatuz Euskadin bakea eraikitzeke eta indarkeria behin betiko desagerrarazteke eta gatazka gainditzeko. Jardunaldien edizio bakoitzean, zuzenbide ikasketak egiten zituzten 50 gazte inguruk parte hartu izan dute. Jardunaldien formatuari dagokionez, hainbat txosten, hitzaldi eta mahai inguru antolatu izan da jardunaldi bakoitzean. Bakearen alde lan egiten duten euskal gizarte erakundeetako kideez gain, euskal alderdi politikoetako hainbat ordezkari parte hartu dute jardunaldietan, eta bakearekin eta adiskidetzarekin erlazioetako alderdiei buruz duten ikuspegia azaldu dute bertan, besteak beste: biktimen tratamendua, memoriaren eraikuntza, bakerako hezkuntza, alderdi politikoaren ilegalizazioa edo indarkeriari zilegitasuna kentzea.

Lehen jardunaldiak UPV/EHUren Leioako Campuseko Zuzenbide Fakultatean egin ziren eta Eusko Legebiltzarrean antolatu dira, berriz, azkenak. Horrela, bisitak antolatu dira Eusko Legebiltzarrean, eta Jonan Fernandez Bakerako eta Bizikidetzarako idazkariaren eskutik, ikasleek *Zabalik* ekimena ezagutzeko aukera eduki dute, Legebiltzarren Osoko Bilkuran bertan egon dira zuzenean eta Eusko Jaurlaritzaren Bakerako eta Bizikidetzarako Planaren berri eduki dute. Bestalde, Bakerako eta Bizikidetzarako Planaren edukia ezagutzeaz gain, ikasleek eztabaidan aktiboki parte hartu ahal izan dute, beren ikuspegiak azaltzeko edo zalantzak planteatzeko.

Bake Bidean jardunaldiekin batera, Leizaola Elkargoak Euskadiko bakeari eta giza eskubideei buruzko argitalpen bat egiten du. El-karrizketak eta iritzi artikuluak zein analisiak egiten dira euskal testuinguru politikoari buruz, betiere baketze, gatazken konponbide etiko edo bakearen eraikuntzaren alde lan egiten duten el-karte zein taldeen sustapenaren ikuspegitik.

Euskal Astea

Urtero antolatzen du Leizaola Elkargoak Euskal Astea. 18 edizio antolatu ditu jada, euskal kulturaren hainbat alderdi azpimarratzeko xedearekin. Behin baino gehiagotan Euskadiko bakeari eta adiskidetzeari buruz hitz egiteko mahai inguruak antolatu dira eta euskal erakunde bakezaleekin erlazionatutako pertsonak zein alderdi politiko eta erakundeetako ordezkariak parte hartu izan dute.

Adiskidetzarentz Euskadin erakusketa

2012ko azaroan, *Adiskidetzarentz Euskadin* izeneko erakusketa antolatu zuen Leizaola Elkargoak. 48 lamina jarri ziren ikusgai (24 euskaraz eta beste hainbat gaztelaniaz), euskal testuinguruan zein nazioartean elkartzeko eta adiskidetzeko egindako ibilbide eta prozesu desberdinak islatzeko.

Memoria historikoa

Memoria historikoaren gaiari helduta, Leizaola Elkargoak bi dokumental argitaratu ditu: *Aro berri baterako propaganda* (2013) eta *Euskadin jasandako tortura (1960-1978)* (2014).

GERNIKA GOGORATUZ

Gernika Gogoratuz¹⁸ Bakearen aldeko Aztertegi bat da. 1987an sortu zen, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenarekin lotuta, Eusko Legebiltzarrak 1987ko apirilaren 10ean onartutako Proposamen Ez Legezkoa gauzatu. Bakearen aldeko Aztertegia Gernikako hirari eta sinboloari estuki loturik dago eta Gernika Gogoratuz Fundazioaren babesa du eta memoriaren eta bakearen kulturaren esparruan lan egiten du. Bere xede nagusia da gogoeta zientifikoaren ondorioz sortu diren edo horrek babesten dituen ekarpenak egitea, eta, modu horretara, mundu osoan, eta, bereziki, Euskadin, bake emantzipatzaile eta bidezko bat lortzen laguntzea. Eta Gernika Gogoratuz Fundazioaren helburu orokor horri begira, *Aztertegiak eta jarduerak garatzen ditu, ikerketa eta prestakuntza eskaintzeko eta esku hartze komunitarioa egiteko.*

UPV/EHUko irakasle batzuk sustatu zuten Gernika Gogoratuz-en sorrera. Beraiek sortu zuten, bakerako ikerketen zentroa kudeatzeko hasieratik. Gernika Gogoratuz Fundazioan UPV/EHUko pertsonak egindako lana eta gizarte zibilak egindako elkartzen dira, askotariko eraginak barne hartuta, feminismoa eta ekologismoa, adibidez, eta erakundeek Eusko Legebiltzarraren Proposamen Ez Legezkoaren bitartez egindako lana barne hartzen da, halaber.

Liburutegi espezializatu bat, hemeroteca, bideoteka eta artxibo bat ditu zentroak eta artxiboa horretan 8.807 erregistrotik gora ditu erregistratuta. Liburutegian 4.077 monografia, 208 unitate didaktiko eta 336 ikus entzunezko baliabide katalogatu daude. Gernika Sarea argitalpen proiektuaren baitan, 13 monografia eta 17 lan dokumentu argitaratu ditu berak bakarrik eta 25 lan monografiko eta ikus entzunezko lanetan parte hartu, beste batzuen artean.

Gernika Gogoratuz-ek 1990 eta 1994 urteen artean egin zuen bere lehen azterketa handia eta Gernikako bonbardaketaren memoria kolektiboari buruz izan zen. Bonbardaketa hartatik bizirik irten ziren pertsonen ikuspegitik landu zen lana eta 1937ko apirilaren 26an gertatu zenari buruzko egia osatzeko orduan biktimen lekukotzek duten garrantzia aldarrikatu zen.

Garai hartan, gatazken eraldaketari buruzko nazioarteko proposamenak txertatu zituen Gernika Gogoratuz-ek bere lanean, eta modu horretara, gatazkek eraldatzeko eta bitartekaritzaren kultura sustatzeko tresna eta praktiketarako erreferentzia bihurtu zen Euskadin. Horrela, aurrerapausoa handiak eman ziren Euskadin, harreman pertsonaletan zein erkidegoaren baitakoetan, eguneroko bizitzako gatazkek konpontzeko aukerako kultura baten ezarpenari, hezkuntza lanari eta udal mailan, akademikoki zein artistikoki egin beharreko lanari laguntzeko.

Horrez gain, Gernika Gogoratuz-ek etengabe egindako lanari esker, bakearen kontzeptua askotariko ikuspegitatik landu ahal izanda, kontzeptuzko esparru abstraktuetatik hasita, gainontzekoekin erlazionatzeko dugun modura; eta etengabeko dialektika bat garatu du proposamen teorikoen eta praktikaren artean, modu horretara, jardunbide egokiekin asmatzeko lana erraztu delarik.

Gernika Gogoratuz-ek bere ibilbidean hainbat eta hainbat jarduerak gauzatu ditu, besteak beste, 2013tik, Astrako *Jardunaldi Antimilitaristak eta Memoria Historikoa* Gernikan, Gernikatik Mundura, Ideasur eta Astra Koordinatzailearekin elkarlanean; Kolonbian eta Guatemalan nazioarteko elkarlanaren, bakearen eta garapenaren arloko sei proiektu koordinatu ditu eta hainbat erakunderi aholkua eman die; arteak eta memoriak bakearen pedagogian duten garrantziari buruzko ikerketa-programetan parte hartu du, hala Europa mailan nola nazioartean, eta komunitateko esku-hartze programak eta prestakuntza eskaintzen ditu bakearen eraikuntzaren arloan honako metodologia hauen bitartez: *Prozesu Zuzentzaile Komunitarioen Metodologia*, *Día Tekhnè - Artearen bidezko Elkarrizketa* eta *Haurrentzako Filosofia*. Hala, akordioak erdietsi ziren ikastetxeetan, udal mailan eta gizarte-erakundeekin.

Halaber, Gernika Gogoratuzek hainbat saretan parte hartzen du, hala tokikoetan nola estatu mailan zein nazioartean. Gainera, 1997an sortutako Gernika Sarea kudeatzen du; nazioarteko sare horrek adiskidetzeari helburu duten prozesuak babestea du helburu. Bestalde, akademiaren eta unibertsitatearen arloan, 1995tik aurrera 92 unibertsitate-ikasleri praktikaldiak egiteko aukera eman die eta hainbat unibertsitateekin eta masterrekin elkarlanean jarduten du, besteak beste: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Castelloneko Jaime I. Unibertsitatea, Bogotako Javeriana Unibertsitatea eta Tolimako Unibertsitatea (azken biak Kolonbian daude).

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko Jardunaldiak

1991tik Gernika Gogoratuz-ek kultura eta bakearen jardunaldiak antolatu ditu, programa akademiko eta sozial baten antzera, eta euskal errealitateko eta Estatuko errealitateko esparru desberdinetako pertsona ugariak parte hartu dute, baita beste testuinguru batzuetako pertsonak ere. Bakearen kultura ardatz duten jardunaldi hauen 24 edizio antolatu dira jada eta askotariko gaiak landu dira, hala nola: memoria, biktimen eskubideak, ekonomia eta bakea, boterea eta bakea, justizia, pertsonak eta erkidegoak aitortzea. Euskadin erreferentzia bihurtu dira jardunaldi hauek bakearen kulturaren balioen sustapenari dagokionez.

Gatazka eraldatzeko ikastaroak

Gernika Gogoratuz-ek Gatazken Eraldaketari buruzko 28 ikastaro garatu ditu. Programa akademiko zabala osatu du eta ikastaroz luzeak eskaini dira, batez ere lehen edizioetan. Euskadin bakearen alde lan egiten duten pertsona askok parte hartu dute ikastaroetan, baita gaur egun garrantzitsuak diren eragileen arduradun askok ere. Ikastaroetan gatazkaren teoriari buruz hitz egiten zen, Lederach edo Galtung gisako erreferentziazko egileetatik hasita, eta parte hartzeko eta praktikarako dinamikekin erlazionatzen zen teoria hori, bitartekariaren irudia, bitartekaritza denborak, elkarrizketa-etzabaida esparruak, konfiantza eraikitzea, krisiaren kudeaketa, erraztea eta adostasunaren garrantzia moduko alderdiak ardatz hartuta; eta nazioartean indartzen ari ziren proposamenak barne hartu dira beste batzuetan, hala nola etorkizuneko lantegien kasuan edo esker oneko elkarrizketen kasuan. Denborarekin, ikastaroak parte hartzaileen ezaugarrietara egokituz joan ziren, izan ere, elkarte, eskola esparru eta abarretatik iristen ziren pertsonak elkartzen ziren.

Gernikako Arte eta Bakearen Nazioarteko Topaketa

2003tik Gernikako Arte eta Bakearen Nazioarteko Topaketak antolatu ditu Gernika Gogoratuz-ek, sorkuntza eta irudikapen artistikoak bakearen aldeko lanean duen gaitasun handia nabarmentzeko eta indartzeko.

Bakerako elkarrizketarako elkargunea, Washingtoneko George Mason Unibertsitatearekin batera

1990 eta 1991 bitartean, elkarrizketarako hainbat elkargune biltzen zituen mintegi bat antolatu zuen Gernika Gogoratuz-ek, alderdi politiko guztietako ordezkariekin. Eszenategi horretan, Gernika Gogoratuz-i elkarrizketa errazteko rola egokitu zitzaion, eta Christofer Michel, John Paul Lederach edo Richard Cohen gisako gatazken bitartekaritza eta konponbideko profesionalen laguntza eta aholkularitza ere eduki zuen. Jardunaldiak urteetan Gernika Gogoratuz-etik aurrez egindako bitartekaritza lanaren barruan kokatzen dira.

GESTO POR LA PAZ

Gesto por la Paz de Euskal Herria¹⁹ Koordinakundea -Gesto aurrerantz- Euskadin 1985etik 2013ra bizitako indarkeria espezifikokoaren esparruan bakearen eta giza eskubideen alde lan egin zuen erakunde bat izan da. Bizitzeko eskubidea gainerako giza eskubide guztien abiapuntutzat hartuta lan egin du beti. 1989ko azaroan erakundearen aitzindari izandako Gesto por la Paz Koordinakundea eta Asociación por la Paz de Euskal Herria izeneko elkarteak elkartzean sortu zen Gesto. Bi elkarten oinarritzko helburua zen Euskadiko indarkeria espezifikoarekin lotutako edozein hilketaren biharamunean kontzentrazio isil bat egitea. Denborarekin, "keinu" ("gesto" gaztelaniaz) hitzarekin ezagutu ziren kontzentrazio isil horiek. Bilboko Eskolapioen Ikastetxeko Itaka taldeak antolatu zuen lehen "keinua", 1985eko azaroan, Bilboko Plaza Zirkularrean, eta aldi hartan 15 minutuko isilunea gordezuten ETAk hildako Rafael Melchor Garcíaen eta José Manuel Ibarzabalaren omenez.

Gestok egindako lanaren ildo nagusiak Euskadin mota orotako indarkeria baztertzeko eta indarkeriaren amaiera eskatzeko beharraren inguruan egituratu dira, bai eta bizitzeko eskubidea, funtsezko eskubide gisa, aldarrikatzeko beharraren inguruan ere. Sortu zenetik plataforma unitario, anitz eta independente bat izan da, bere ekintzen eta lan ildoen bitartez gizartea Euskadin bakea bilatzeko beharraz sentsibilizatzeko eta helburu bat lortzeko indarkeriaren erabilera baztertu behar dela azpimarratzeko. Guztiarekin, giza eskubideekin erlacionatutako kontzientziazio etiko bat sortzen laguntzeaz gain, Euskadin sortutako gorrotoa gainditzeko bideak bilatu ditu beti.

Gestoren printzipioei dagokienez, giza bizitzaren defentsa, pertsona guztien giza eskubideen errespetua, indarkeriari zilegitasuna kentzea eta indarkeriaren biktima guztienganako elkartasuna aldarrikatu ditu hastapenetatik.

Gestotik diskurtso bat landu zuten, printzipio aurre alderdikoetatik abiatuta, eta diskurtso horretan hainbat alderdiri buruz hitz egiten zen: gatazka politikoa eta indarkeria bereizteko beharra, indarkeriaren aurkako batasuna, euskal gizartearen aniztasunaren defentsa, indarkeriari zilegitasuna kentzeko beharra eta memoria eraikitzeke proposamenak sortzea. Gestotik lan handia egin zen elkarrizketa sustatzeko, herritarrentzako interes berezia zuten gaietan adostasun batera iristeko ahalegin berezi bat eskatu zen eta pertsona guztien giza eskubideen errespetua aldarrikatu zen, batez ere agintarien aldetik egindako abusuak salatuz.

Erakunde gisa zuen egiturari dagokionez, Batzarra, Koordinakunde bat eta Lan Batzordeak -Bakerako hezkuntza, Biktimak, Presoak eta Atxilotuak eta Bake Hitzak aldizkaria- zituen Gestok,

¹⁹ <http://www.gesto.org/es/>

eta toki mailako hainbat talde ere bazituen; 90eko hamarkadaren amaieran, 175 talde inguru edukitzera iritsi zen. Lan batzorde horiek garatutako lan espezifikoaz gain, Gestok lan handia egin zuen gizarte mugimendu gisa bere "keinuen" bitartez, eta urtarilaren 30aren inguruan -Gandhiren heriotzaren urteurrena- urtero antolatutako bakearen aldeko manifestazioekin, indarkeriaren biktimen aldeko elkartasunezko ekintzekin edo edonolako indarkeriaren aurkako kanpainen eskutik. Era berean, Zuzenbide Estatua defendatu zuen, gerra zikinarekin edo torturarekin usteldu nahi izan zutenen aurrean. Halaber, bakerako hezkuntzaren esparruan egindako ekarpen handia azpimarratu behar da, baita, oro har, jardunaldi publikoen bitartez eztabaida eta elkarrizketa soziala sustatzeko egindakoa ere.

Gesto sortu zenetik egindako ibilbidean zehar, makina bat ekitaldi, jardunaldi, biltzar eta mota orotako ekintzetan parte hartu du eta bakearen aldeko konpromisoa hartu duten hainbat eragileekin lankidetzan jardun du. Lankidetzan horren baitan, erakunde mailan zein gizarte mailan antolatutako hainbat ekimenen antolakuntzan parte hartu du, batez ere ekimen nazionaletan, baina baita nazioartekoetan ere.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Keinuak

Gestok garatutako jardueran, gizartea mobilizatzeko egindako ekintzek berebiziko garrantzia lortu zuten. Hasteko, erakundearen identitatearen ezaugarri nagusi bihurtu ziren "keinuk". Euskadiko indarkeria espezifikoarekin lotuta gertatutako edozein hilketaren biharamunean egindako 15 minutuko kontzentrazio isilak, edozein biktimaren alde egiten zirenak -ETArenak izan zein GALenak izan, edo Estatuko agenteena izan-, indarkeria gaitzesteko eta indarkeriaren ondorioen aurrean jaikitzeko erantzun zibiko gisa ikusten hasi ziren. Askotan errepikatu ziren "keinu" horiek Euskadiko 170 leku baino gehiagotan, herriak, auzoak, eta hiriak barne hartuta.

Urtarrileko manifestazioak

1988tik 2012ra, eta Gandhiren heriotzaren urteurrena ospatzeko, Gestok manifestazio bat deitu zuen urtero, urtarrilean, "ez dago bakerako biderik; bakea bera da bidea" Gandhiren ideia zabaltzeko. Era berean, gizarteari gonbitea egiten zitzaion eredu bakezale eta demokratiko bat garatzeko, indarkeria eta indarkeriazko bihurtzekoak erabiltzen, defendatzen eta justifikatzen zituztenen aurrean. Manifestazio horietan, gainera, biktimak gogoratzen ziren, giza eskubideak defendatzen ziren eta alderdi politikoei batasuna eskatzen zitzaien indarkeriaren aurrean.

Bahiketen aurkako kanpainak eta Lazo Urdina

1986tik 1989ra Asociación por la Paz de Euskal Herria izeneko elkarteak eta Gesto por la Paz koordinakundeak ETAk urte haietan bahitutako pertsonen askatasuna eskatzeko kanpainak garatu zituzten. Kanpaina horiek guztiak garrantzitsuak izanik ere, Julio Iglesias Zamora bahitu ondoren antolatutako kanpainak, 1993ko uztailean, eragin handia lortu zuen gizartean, izan ere, ekintza txikiak eta mobilizazio handiak antolatu ziren hainbat herri eta hiritan, eta guztien artetik Donostian irailaren 11n egindako manifestazioa azpimarratu behar da. Kanpaina horren esparruan, eta Giza Eskubideen aldeko Elkartearekin, Fundazioarekin eta Bakea Orain erakundearekin batera, *Lazo Urdina* aurkeztu zen batasunaren sinbolo gisa, Julio Iglesias Zamoraren bahiketaren aurkako jarrera erakusteko eta bere askatasuna eskatzeko.

1995eko maiatzean José María Aldaia bahitu zuen ETAk. Oraindik bahituta zegoela, José Antonio Lara bahitu zuen, 1996ko urtarrilean, eta urte hartako azaroan Cosme Delclaux bahitu zuen. Bahiketa horien aurrean, Gestok bahituta zeuden pertsonen askatasuna eskatzeko mobilizazio ugari eta etengabeak antolatu zituen eta gizartean bahiketen aurrean askatasuna eskatzeko kanpaina sistematiko bat sortu zen. ETAk Miguel Angel Blanco bahitu eta hil zuen, eta, testuinguru hartan, Gestok Euskadin antolatutako askotariko mobilizazioetan parte hartu zuen, eta une oro, lasaitasunari eutsi behar zitzaioela eta mobilizazio baketsuak egin behar zirela azpimarratu zuen, gizartean haserrea eta amorrua nagusi izanik ere.

Gestoren ahotsa

Gestok lan handia egin zuen bere lan arloekin lotutako dokumentuak sortzeko eta bere ideiak hainbat kanaletatik zabaltzeko. Hala kanpaina eta ekimenetarako sortutako dokumentuetan, nola Bake Hitzak aldizkarian -87 zenbaki 1992 eta 2013 artean- Gestok bere ikuspegia eskaini du, Euskadin bakea lortzeko gizarteak duen beharraz kontzientziatzeko nahiarekin. Horrez gain, Gestok ahalegin handia egin zuen komunikabide, irrati eta idatzizko prentsan agertzeko -kontuan hartu behar da boluntarioek osatutako elkarte bat zela-, bere lanarekin erlazionatutako gai desberdinei heltzeko. Gestok landutako dokumentu eta komunikatu guztietan islatzen dira koordinakundearen ildoak: indarkeria baztertzea, jatorria edozein delarik ere, biktimei laguntzea eta giza eskubidetik abiatuta giza eskubideak betetzen direla ziurtatzea.

GEUZ. GATAZKA ERALDATZEKO UNIBERTSITATE ZENTROA

Geuz Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentro bat da, UPV/EHUrekin erlazioa du eta eraldaketa lortzera bidean bakearen kultura transmititzea eta gatazken konponbidea ardatz dituen erakunde gisa definitzen da. Helburu nagusizat du epe laburre-ra eta luzera euskal gizartea bakearen kulturaren bidean jartzeko lan egitea; izan ere, oso garrantzitsua da euskal gizarteak ulertzea gatazkak gizarteko zein egiturazko elementuak hobetzeko eta eraldatzeko aukera bat direla.

Geuz Spin-off enpresa bat da 2004tik, nahiz eta 1998an eman zitzaion bulkada ikerketa-talde eta erakunde gisa. EHUko hainbat irakaslek eta ikertzailek eta Euskadin gatazken konponbidean eta bitartekaritzan esperientzia handia duten hainbat adituk landu zuten Geuz sortzeko ekimena. Gizarte-eraldaketaren ikuspegiari helduta bakearen kulturaren eta gatazken eraldaketaren alorrean profesionalki lan egin nahi zuten hainbat pertsona elkartzean sortu zen Geuz. Pertsona horiek elkarbizitza eta bakea lortzeko zuten beharretik, euskal errealitatea ezagutzeko proiektuak zehaztu eta garatu ziren.

Geuzek askotariko alorretan esku hartzen du. Banakoa denetik komunitarioa denera, eskolaketatik eta penalera, eta hainbat prozedura jarraitzen ditu, hala nola prestakuntza, gatazkak konpontzeko eta eraldatzeko sistema eta prozesuetan esku hartzea edo horiek diseinatzea. Euskadiko gatazkaren eta indarkeriaren egoerari dagokionez, Geuzek ez du gehiegitan zuzenean lan egin gaiaren inguruan, izan ere, zailagoa deritzo gatazkak eraldatzeko tresnak eta balioak lortzeari, gatazka bera abiapuntutzat hartzen bada. Hala ere, gatazkak elkarrizketaren eta adostasunaren bitartez konpontzeak duen garrantzia ulertarazten lagundu du bere lanarekin, eta jokaera hori bizitzako edozein esparrutara, baita Euskadiko gatazka eta indarkeriaren gaia aztertzeko ere, eraman daitekeela erakutsi nahi izan du.

Eskola-esparruari helduta, 250 ikastetxe baino gehiagorekin batera lan egin du elkarbizitza-planak, sentsibilizazio- eta hedapen-ekintzak eta klaustro, aita eta ama eta irakasle ez diren langileen prestakuntza sortzeko, eta ikasleekin ere lan egin du bakearen kulturaren eta gatazken konponketaren arloan. Horrelako ekintzei esker, ikastetxeetako elkarbizitzaren diagnostikoa eta elkarbizitza-planen diseinua egitea eta horren jarraipena egitea lortu da kasu askotan; ebaluazioa egitea ere lortu da kasu ugarian. Horrela, Geuzek lan handia egin du gatazkak konpontzeko tresnak, eskola-bitartekaritzako programak eta lehengoratzeko-diziplinaren mekanismoak eskaintzeko, edo indarkeria larriko egoerak, bullyinga edo indarkeria sexista, adibidez, prebenitzeko.

Komunitateari dagokionez, Geuzek udal elkarbizitzarako proiektuak egin ditu ikuspegi desberdinetatik, eta horretarako, hedapen, sentsibilizazio eta prestakuntzako ekintzak garatu ditu eta

gatazkak konpontzeko tresna eta trebetasunei buruzko prestakuntza eskaini die udal eragileei, elkarteei eta, oro har, herritarrei. Herritarren parte-hartzea ere sustatu da: elkarbizitzarako partaidetzako organoak edo elkarbizitza eta bakerako udal mahaiak sortzeko lan egin da. Adierazitakoaz gain, taldeetan esku hartu da batzuetan, gatazkak konpontzeko praktikaren barruan, udal batean gatazka pertsonalagoak eta gatazka zehatz batzuk gertatu direnean. Amaitzeko, hedapenaren ikuspegitik, Geuzek hainbat gida eta esku-liburu argitaratu ditu. Gai errazak landu dira batzuetan, gatazkak konpontzeko lehen laguntza, esate baterako, eta dokumentu landuago batzuk osatu dira, halaber, emakumeek bakearen kulturaren duten zereginari buruzko bat, adibidez.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Nik Mass UP

Geuzek Nik Mass Up handi bat garatu du Errenterian, beste erakunde batzuekin batera. Proiektuaren ardatza da euskal identitatea eraikitzea, bere berezitasunak ezagutzea eta horrek Euskadiko gatazkan, indarkerian eta bakean duen eragina ikustea. Egun eta erdi irauten duen lantegi batean hogeita hamar gazterekin landu behar da proiektua. Lehenik eta behin, identitateari buruzko kontzeptuen inguruan hausnarketa egiteko eta izan daitezkeen zalantzak argitzeko prozesu bat hasi behar da; ondoren, elkarrizketak egiteko gaikuntza teknologikoa eskaini behar zaie gazteei; eta, hori guztia egin eta gero, taldeak egingo duen elkarrizketaren gidoia adostu behar du taldeak. Gidoi hori hartu eta gazteak kalera irten behar dira, euskal identitateari buruzko galderak egitera. Sarean jarriko da, ondoren, egindako lanaren emaitza, eta jendeak nahi beste iruzkin egin ahal ditu elkarrizketari buruz eta abar. 2012an egin zen lehen aldiz. Emaitza 8 minutuko dokumental bat izan zen. Proiektu berri honekin dokumental luzeago bat egin nahi da, 2016an proiektatzeko.

Errenteriako Nik Mass Up proiektuaz gain, Leioan ere beste Nik Mass Up proiektu bat ezartzen ari da Geuz zentroa. Errenteria-koaren formatu metodologiko bera du Leioakoak eta honek ere euskal identitatea eraikitzea, bere berezitasunak ezagutzea eta horrek Euskadiko gatazkan, indarkerian eta bakean duen eragina ezagutzea du ardatz gisa.

Biktimek eskoletan egindako parte-hartzearen esperientziak barne hartzen dituen ekimena

Geuzek biktima hezitzaileen esperientziarekin erlazionatutako proiektu bat garatuko du. Esperientzia hartan, biktimizazio-prozesuari buruz hitz egin zuten biktimek eskoletan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hainbat ikastetxetako geletan garatutako lana ezagutzera eman nahi da aipatutako proiektuaren bitartez. Nik Mass Up proiektuaren egokitzapen batean datza eta helbu-

rutzat du ikasleek aipatutako esperientziatik ateratako funtsezko ondorioak ezagutzea. Hausnarketarako prozesu bat garatu behar da, biktima iritsi zen unean gertatu zenari buruz, biktimak esandakoa interpretatzeko moduari buruz, eta eguneroko bizitzan eraginik eduki ote duen jakiteko edo esperientzia nola landu duten jakiteko, nola gogoratzen duten eta atera dituzten ondorioak ezagutzeko, bai eta gazteek gizarteari helarazi nahi dizkioten mezuak ezagutzeko ere. Horretarako, mezu horiek sortuko dituzten galdera egokiak egin behar dituzte. Hasteko, grabaketa-teknikei buruzko prestakuntza eskaini behar zaie gazteei, eta ondoren, ikasleek elkarrizketak egiten dizkiete elkarri. Esperientzia horiek Internet bidez mezuak helarazteko erabiliko dira, eta modu horretara, gizarte guztiaren aurrean zabalduko dira.

LOKARRI

Lokarri²⁰ Euskadin bakea eta bizikidetzaren normalizazioa lortzeko lan egiten duen herritarren sare independente eta anitz bat da. 2006ko martxoan sortu zen, Elkarri-ren oinordeko gisa, Elkarriko kideek jada helburuak bete zituztela eta herritarren aldetik bakea sustatzeko beste tresna bat behar zela uste baitzuten. Lokarriren printzipioak dira: indarkeriarik eza, giza eskubideen errespetua, elkarrizketa eta herritarren borondatearekiko errespetua, eta helburutzat du akordio anitz bat eta herritarren kontsulta lortzeko lan egitea, betiere herritarren parte hartzea azpimarratuz, izan ere, gatazka eraldatzeko eta adiskidetzera sustatzeko funtsezkoak baitira herritarrak.

9 urteko ibilbidean, eta 2015eko martxoan bere ibilbidea amaitutzat emango zuela jakinarazi eta gero, Lokarrik hainbat ekimen garatu ditu, hedapena indartzeko ekimenetatik, parte hartzea eta eragina sustatzeko ekimenetara; Euskadira mugatutako ekimenak zein nazioartekoak egin dira eta desberdinen artean elkar ulertzeko, aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeko eta bizikidetzera laguntzeko espazioak eta prozesuak sortzen lagundu da eta politika eta identitatearekin zein biktimen edo presoan sufri-menduarekin erlazionatutako gaiak jorratu dira.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Harremanetarako Nazioarteko Taldeari (NZT) laguntza

Bryan Currin-ek sustatutako eta nazioarteko pertsona ezagun ugarik sinatutako 2010eko martxoko Bruselako Deklarazioaren ondoren -ezker abertzaleak bide politikoak eta demokratikoak bakarrik erabiltzeko hartutako erabakia babesten zen eta ETA-ri eta Espainiako gobernuari erantzun bat emateko eskatzen zitzaien-, Harremanetarako Nazioarteko Taldea sortu zuen Bryan Currinek, eta 2010eko azaroaren eta 2011ko otsailaren artean egin zen aurkezpena. Ezker abertzalearen legalizazioa, ETAren su etena egiaztatzea eta elkarrizketa eta negoziazio politikoa sustatzea finkatu ziren NZTren helburutzat. NZTk askotan bisitatu du Euskadi eta Lokarriren laguntza eta babesa eduki du bere zeregin-garatzearan.

Aieteko Konferentzia

Nazioarteko hainbat pertsona ezagunek eta NZTk eskatuta, 2011ko urriaren 16tik 17ra Lokarrik Aieteko Konferentzia antolatu zuen, Euskal Herrian gatazkaren konponbidea sustatzeko. NZTk konferentzia bat antolatzeko ideia landu zuen, Euskadiren bakeari sostengua eskaintzeko nazioartean. Horrela, Lokarrirekin harre-

²⁰ www.lokarri.org

manetan jarri zen, eta Lokarrik, egoera bertatik bertara ezagutzen zuela eta politikariek eta gizarte eragileekin harremanak zituela baliatuta, Konferentzia antolatzeari ekin zion. Hasieratik, euskal alderdi politiko guztiak gonbidatu zituen -Alderdi Popularrak ez zuen parte hartu-, baita sindikatu guztiak, patronala eta gizarte erakunde guztiak ere. Lokarriekin batera, honako erakunde hauek sustatu eta lagundu zuten ekitaldian: [Berghof Foundation](#) for Peace Support, [Conciliation Resources](#), [The Desmond Tutu Peace Foundation](#), [NOREF](#) eta Nazioarteko Harremanetarako Taldea.

Kofi Anan, Gro Harlem, Bertie Ahern, Pierre Joxe, Gerry Adams eta Jonathan Powell-ek irakurri zuten Aieteko Adierazpena. Aieteko Adierazpenaren edukari dagokionez, ETari borroka armatua behin betiko uzteko eskatzen zitzaion eta, era berean, Espainiako eta Frantziako gobernuen gatazkaren ondorioei buruz bakarrik hitz egiteko eskatzen zitzaion; Espainiako eta Frantziako gobernuen su etenari ongi etorri egiteko eta gatazkaren ondorioei buruz bakarrik hitz egiteko eskaera luzatzen zitzaion; adiskidetzeko, biktima guztiei eragindako kaltea eta mina aitortzeko eta zauriak sendatzen laguntzeko urratsak emateko beharra azpimarratzen zen. Horrez gain, gizarte eragileei eta ordezkari politikoei elkartu eta gai politikoei eta horiekin erlacionatutako beste gai batzuei buruz eztabaidatu behar zutela iradokitzen zitzaion, baita herritarrei galdetu behar zitzaizela ere, gatazkarik gabeko garai berri bati hasiera emateko. Halaber, hirugarren behatzaileak edo bide-eratzatzaileak aipatzen ziren elkarrizketa lagun zezaketen alde gisa, eta adierazpenaren egileak prest agertzen ziren jarraipen batzorde bat antolatzeko. Aieteko Konferentziaren ondoren, Lokarritik hedapen prozesu bat sustatu zen eta nazioartean Adierazpenaren aldeko babesak lortu ziren egindako lan handiari esker.

Foro Soziala

Lokarrik, Bake Bidea erakundearekin eta Euskal Herriko, Estatu-ko zein nazioarteko hainbat talderekin batera, Foro Soziala sustatu zuen, Aieteko Konferentzia, elkarrizketari eta bizikidetzari buruzko proposamenak sortzeko Mintegi bat eta Baionako Bakerako Foruma, Aieteko Adierazpena gizartearen zabaltzeko eta elkarrizketa eta parte hartzea sustatzeko antolatu zena (2012ko abenduan antolatu ziren azken biak), aurrekari zituela. Ekimenak helburutzat zuen ezaguerak eta ideiak sortzea bake prozesuan aurrera egiteko, eta horretarako, 2013ko martxoan bi saio antolatu ziren Iruñean eta Bilbon. Saio haietan parte hartu zuten nazioarteko adituek hainbat gai jorratu zituzten: armagabetzea, giza eskubide, preso eta iheslarientzako bermeak eta iraganari aurre egiteko beharra. Era berean, herritarren parte hartzea sustatu zen, eta inkesta bat betetzeaz gain, foroan parte hartzeko aukera eman zitzaion.

Jardunaldi horiek amaitzean, 12 gomendio bateratu ziren, adostasun politikoei, desegiteari eta armagabetzeari buruz, preso eta iheslarien gizarteratzeari buruz, giza eskubideen bermeari buruz

eta egiari eta memoriari buruz, eta 2013ko maiatzean aurkeztu ziren. Aurkezpena egin eta egun pare bat beranduago, elkarrizketarako bi espazio antolatu ziren Iruñean eta Bilbon, Foro Sozialak egindako gomendioen inguruan ideia eta ekintza proposamen zehatzak lantzeko. Eta, ondoren, ekaina amaiera aldera, beste bi saio egin ziren Iruñean eta Bilbon eta nazioarteko adituek herritarrek bakearen alde eta presoak eta iheslariak gizarteratzeko egin zezaketenari buruz zuten iritzia azaldu zuten.

Adierazitako lan guztia burutu ondoren, Lokarritik gomendioak hedatzeko lanari ekin zitzaion, eta lan handia egin zen gomendio horiek euskal herritarren artean eta Eusko Legebiltzarrean, Nafarroako Parlamentuan eta Europako zein Britainia Handiko Parlamentuetan ezagutzera emateko. Amaitzeko, 2014ko maiatzean Lokarrik Bakerako Forum berri bat egin zuen Baionan, eta gomendioei buruz hitz egin zen bertan; apirilean, berriz, Foro Sozialaren ekimenaren baitan egindako lan guztia sistematizatzen duen liburua aurkeztu zen.

Elkarrizketa eta parte hartzea ardatz duten ekimenak

Lokarrik elkarrizketa eta herritarren parte hartzea oinarrian duten askotariko ekimenak antolatu ditu. Hasteko, 2009an, Akordiotarra iristeko itxi egingo gara izeneko kanpaina antolatu zen. Xede horrekin, Bilbon, Gasteizen eta Iruñean adiskidetzeari buruzko akordioak lortzeko elkarrizketarako guneak antolatu ziren. Beranduago, 2009 eta 2012 urteen artean, Behatoki Soziala antolatu zen. Behategi Sozialean herritarrei aukera eman nahi zitzaion Euskadin bakea eraikitzeko zituzten ideiak eta ezaguerak helarazteko, eta horretarako, xede horrekin prestatutako galde sortez gain, udalerrietan elkarrizketarako espazioak antolatu izan dira. Bestalde, Lokarriren eskutik euskal alderdi politikoetako erakunde gazteek hainbat bidai egin zituzten Belfast-era (Ipar Irlanda); bidaiatzeaz gain, Euskadiko bakea ardatz hartuta antolatutako elkarrizketa prozesu batean parte hartu zuten gazte horiek.

2012ko abenduan, Lokarrik elkarrizketa ardatz zuen ekimen berri bat antolatu zuen Barakaldoko BECen, Open Space Technology lanerako baliabidearen bitartez. 200 pertsonak inguruk parte hartu zuten eta ondorio gisa adiskidetzarako 10 erronka argitaratu ziren. Bestalde, Foro Sozialaren ondoren, Hitzorduak ekimena garatu zuen Lokarrik. Ekimen horren baitan, 26 elkarrizketa antolatu ziren. Pertsona publiko batek eztabaidaren gaia aurkezten zuen, ondoren, saiora bertaratutakoek gaiari buruz eztabaidatzeko. 26 saio haietan askotariko gaiak landu ziren: biktimen tratamendua, adiskidetzea, presoek tratamendua eta abar.

Gaur egun, Lokarri bere ibilbidearen amaierara iristen ari den honetan, Gipuzkoako hainbat udalerritan elkarrizketarako espazioak sortzeko lanean ari da, etengabeko elkarrizketa prozesuetan parte hartu eta bizikidetzak hobetzen eta gizarte ehuna eraikitzen laguntzeko.

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA

1936-1939ko gerrate zibilean gertatutakoa eta herriak jasandako bonbardaketa erakusteko eta ezagutzera emateko helburuarekin, 1998an Gernikako Museoa sortu zuen Gernikako Udalak. 2002ko uztailean, Gernikako Bakearen Museoaren Fundazioa²¹ batera sortzea erabaki zuten Gernikako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, bi lan-ildo betetzeko asmoz: batek Historia eta Memoria edukiko zituen ardatz gisa eta Bakea eta Giza Eskubideak, berriz, besteak. Horrela, 2002ko otsailetik abendura museoa itxita egon zen, berrantolaketa-lanak burutzeko, eta erakusketa iraunkor batekin inauguratu zen Bakearen Museo gisa.

Bakearen Museoak ikuspegi museistiko batetik garatzen ditu lehen aipatutako bi lan-ildoak; horretarako, ondareari buruzko informazioa bilatzeko eta erakusteko ekintzak antolatzen dira, baita ondarea eraikitzeak ere, eta helburua da Gernikako bonbardaketari eta gerra zibilari buruzko gauza oro bildu, kontserbatu eta horretan heztea eta ikastea, bakearekin eta giza eskubideekin erlazionatutako gaiak barne hartuta. Zentzu horretan, bakeak duen garrantziaz kontzientziatzeko apustu egin du museoak, eta horren erakusle garbia da erakusketa iraunkorra sortu zenetik, bakearen kultura eta giza eskubideak barne hartu izana. Horregatik, ikuspegi historiko zabala eskaintzen da, iraganetik hasita, gaur egunera arte, elkarbizitzarekin, bakearekin eta giza eskubideekin erlazionatutako etorkizuneko ikuspegi barne hartuta.

Sarean lan egiten du Bakearen Museoak nazioarteko, Estatuko eta Euskadiko (AIPAZ, Giza Eskubideen Hezkuntzarako Elkarleen Foroa eta Paz de Euskadi Elkarte, IC-MEMO, Sites of conscience, INMP,...) hainbat erakunderekin, eta, horri esker, beste ikuspegi, lan eta esperientzia batzuk ezagutzeko aukera eduki du eta oso baliagarria izan da ikasitako guztia, fundazioak bere lanean aurrera jarraitzeko. Horrez gain, Museoa akademiatik edo gizarte-mugimenduetatik egindako bakeari buruzko lanak sozializatzeko espazio bat da, baita aipatutako bi esparruetatik bakearen alde egindako lanarekin konektatzeko ere.

Museoak dokumentazio-zentro bat du, Gernikako bonbardaketan, Gerrate Zibilean eta erbesteratzean berezitua. Gainera, museoeko hezkuntza-sailak museoari egiten zaizkion bisiten bitartez esperientzia positiboak eskaintzea du helburu; horretarako, bisitariak bakearen hezkuntzara eta balioen hezkuntzara hurbildu nahi ditu, Gernikako bonbardaketari eta Gerrate Zibilari buruzko ezagutzak zabaldu nahi ditu eta hausnarketak, sentipenak, sententzioak eta ezagutzak piztu nahi ditu hamabost tailer didaktiko baino gehiagoren bitartez, umeentzako udalekuen bitartez eta indarkeriarik ezaren zein giza eskubideen gaineko jardunaldien bitartez.

2000. urtetik, Gernika Gogoratzuz eta Gernikako Kultur Etxearekin elkarlanean, Bakearen Museoak bi urtero nazioarteko topaketak antolatu ditu, artea eta bakea ardatz, bakearen aldeko lanean sorkuntzak eta arte-adierazpenak duen gaitasuna argitara ekartzeko eta sendotzeko.

Bestalde, *Museoa eskoletan - El museo en los centros escolares* Bakearen Museoaren hezkuntza-programa bat da. Programaren helburua da bakearen kultura eta giza eskubideak bezalako gaiak Museotik atera eta Euskadiko hainbat eskolara eramatea, hezkuntzako hainbat etapatako haur eta gazteekin tailerrak egiteko.

Museoari dagokionez, Bakearen Museoak urtean aldi baterako hiru erakusketa antolatzen ditu, bere kontura edo beste erakunde batzuekin elkarlanean. Era horretan, eta erakusketa horien birtartez, gehiago sakon daiteke Museoak lantzen dituen gaietan. Hauek dira kulturari eta giza eskubideei buruz Museoak azken aldian izan dituen erakusketa batzuk: *Zibilizazioen arteko elkarrizketa*, *Bakea josiz: Gatazka, Arpillerak, Memoria* edo *Gatazka eraldatutako eguneroko bizitzako objektuak*.

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Erakusketa iraunkorra

Museoko erakusketa iraunkorra 3 ardatz edo galderaren inguruan egituratuta dago: Zer da bakea? Zer gertatu zen bakerik gabeko une batean, Gernikako bonbardaketan eta Gerra Zibilean? eta, Zer gertatzen da giza eskubideekin Euskadin eta munduan?

Basoaren metafora baliatu da Euskadiko gatazkaren eta indarkeriaren gaia garatzeko. Basoko landareak eta animaliak, desberdinak izanik, elkarrekin bizitzeko gai dira; ideia hori euskal errealitatera eraman behar da, desberdintasunean elkarbizitzen jakiteak duen garrantzia azpimarratzeko. *Basoan* zuhaitz desberdinak daude eta indarkeriaren begi-bistako zein ezkutuko ondorioak ikus daitezke zuhaitz horietan, besteak beste: biktimak, mehatxuak, indarkeriaren kultura, tortura, espetxe-politikaren gizagabetzea. Erakusketa iraunkorrak dinamikoa izan behar zuen, eta malgua, hasiera batean kanpo utzi ziren ikuspegiak aurrerago barne hartu ahal izateko, eta xede horrekin, bi ordenagailu prestatu ziren, alderdi politikoek, akademikoek eta bakearen aldeko mugimenduekin erlazionatutako pertsonak Euskadiko gatazkari eta indarkeriari buruz zuten iritzia bertan adierazteko.

Erakusketa iraunkorra sortzeko, Gernikako Bakearen Museotik lan handia egin zen bakearen eta giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeekin eta mugimenduekin koordinatzeko, eta museografia-taldeak ere lagundu zuen zeregin horretan. Erakusketa

iraunkorra sortu zenean, hasieratik bilatu zen giza eskubideen urratzearen ikuspegi oso bat islatzea, betiere arazoaren konplexutasuna kontuan hartuta.

Azken urteetan, museoko bigarren solairua birmoldatzeko prozesu bat burutu da. Izan ere, bigarren solairu horretan dago Euskadiko gatazkarekin eta indarkeriarekin erlazionatutako giza eskubideei eta bakeari buruzko erakusketa, baina 2003an sortu zen erakusketaren edukia zaharkituta geratu da. Horretarako, bakearen inguruan ikuspegi desberdinetatik lan egiten duten erakunde eta mugimenduekin bilerak antolatu ziren. Bilera haietan sortutako ideiak abiapuntutzat hartuta, Gernikako Bakearen Museoak oinarritzko txosten bat idatzi zuen eta Euskadiko gatazkarekin eta indarkeriarekin erlazionatutako giza eskubideei eta bakeari buruzko erakusketan partu zuten erakundeei bidali zitzairen txosten hura, ekarpenak egin zitzaizkien. Prozesu hori amaitzean, txosten bat idatzi eta Fundazioaren patronatuari aurkeztu zitzaion. Hain zuzen, txosten hori oinarrian hartuta osatuko da erakusketa berria eta 2016rako prest egotea aurreikusi da. Zentzu horretan, prozesua garatzeko orduan izandako parte-hartzea azpimarratu nahi da, Euskadiko gatazkarekin eta indarkeriarekin erlazionatutako giza eskubideei eta bakeari buruzko erakusketa birmoldatzeko proiektuaren balio handietakoen artean eta aurrerapauso gehiago emango dira 2015 eta 2016an.

MemoriaLab

Bakeola eta Gernika Gogoratzuz zentroekin batera garatzen ari den proiektu bat da MemoriaLab eta helburutzat du herritarrei aukera ematea Euskadin gertatu zenari buruzko gizarte-memoriaren eraikuntzan parte hartzeko. Euskadiko udalerrri batzuetan gizarte-memoriari heltzeko topaguneak egitean datza aipatutako proiektua. Berriz topagune bat antolatu zen esperientzia pilotu gisa. Euskal gizarteko kide ziren eta gaiarekin sentsibilizatuta zeuden 28 pertsona elkartu ziren bertan. Esperientzia hartan, gaia lantzeko hainbat dinamika garatu ziren; denboraren lerroak, hain zuzen ere. Proiektuarekin jarraituz, hiru esperientzia jarri dira martxan; lehenengoa, Gallartan 2013ko azaroan, ondoren, beste baba Gernikan eta Amorebietan, 2015eko otsailean eta martxoan. Udalerrri bat aukeratu eta bertako 25-28 herritar leku diskretu eta seguru baten elkartzea eta udalerrri horretan eta Euskadin gertatutakoari buruz hitz egitea bilatzen du aipatutako proiektuak. Horrela, denborarekin, gizarte-memoriaren mapa osatuko da. Esperientzia guztiak sistematizatu egingo dira, beste leku batzuetan berdin errepikatu ahal izateko.

UNESCO ETXEA

Unesco Etxea²² irabazi asmorik gabeko kultur erakunde bat da. GKE bat da, erabilgarritasun publikoko erakunde gisa dago aitortua, 1991n sortu zen eta Nazio Batuekin eta UNESCOrekin erlazioa du, nahiz eta ez den NBERen agentzien ordezkari ofizial bat. UNESCOrekin harreman ofizialak edukitzeaz gain, Unesco Etxea Nazio Batuen informazio publikoko saileko kide da eta kontsulta erakundea ere bada, hortaz, nazioarteko espazio formaletan parte hartzeko aukera du.

Unesco Etxearen helburu nagusiak dira, euskal esparruan UNESCOren printzipioak, programak, kanpainak eta dokumentuak zabaltea, alde batetik, eta komunikatzeko kanal bihurtzea nazioarteko erkidegoaren, eta, bereziki, NBE eta UNESCOren eta euskal gizartearen artean. Helburu horiek betetzeko, hainbat ekimen garatzen dira nazioartean, zein euskal esparrura mugatuta. Nazio Batuen nazioarteko espazio ofizialetan parte hartzen du Unesco Etxeak, botorik gabe, eta berari esker, hainbat euskal eragilek aukera eduki dute beren ideiak, ekimenak eta kezkek nazioarteko erkidegoari helarazteko; adibidez, Emakundek emakumeari buruz antolatu diren hainbat espaziotan parte hartu ahal izan du, Unesco Etxearen eserlekua baliatuta. Esandakoaz gain, Unesco Etxeak sare ugarian parte hartzen du nazio mailan zein nazioartean.

Unesco Etxeak lan ildo desberdinak garatzen ditu, eta horien artean, Giza Garapenerako Ura, Giza Garapenerako Kultura, Iraunkortasuna eta Bake Kultura eta Giza Eskubideak programak daude. Eragiteko, prestakuntzarako, sentsibilizatzeko eta informazioa emateko lanak egiteaz eta dokumentuak eta txostenak lantzeaz gain, boluntarioentzako beken programa zabal bat du, UNESCOk Hegoaldeko herrialdeetan dituen ordezkarietan lan egiteko. Hezkuntzaren alorretik, irakasleentzako prestakuntza ekintzak egin dira, eta baliabide didaktikoak landu dira, halaber, bakearen kulturari buruz egin beharreko lan pedagogikoa errazteko.

Euskadiko bakearen aldeko lanari dagokionez, Unesco Etxeak bakearen eraikuntzari buruzko nazioarteko esperientziak aurkeztu ditu, eta horietatik abiatuta, euskal errealitatea aztertze esparruak zabaldu nahi izan ditu. Izan ere, beste errealitate batzuk ezagutzea lagungarria da giltza berriak ezagutzeko, ikaskuntza berriak lortzeko, gauzak zalantzan jartzeko, erlatibizatzeko, batzuetan gauzak handietsi egiten direla konturatzeko; azken finean, beste leku batzuetan garatutako prozesuetatik ikasteko.

²² www.unescoetxea.org/

Bakearen aldeko ekimen nagusiak

Bakerako Giza Eskubidea

Unesco Etxeak, AEDIDH erakundearekin batera, aktiboki parte hartu du Bakerako Giza Eskubideari buruzko kanpainan, 2006ko Luarcako Deklaraziora iritsi aurretik. Horrela, hainbat ekimen garatu ditu euskal esparruan, besteak beste *Bakerako Giza Eskubidearen Deklarazio Unibertsalaren Proiektua* (Gernikan aurkeztu zen 2005ean) mintegia, mintegi horretako txostenen liburuaren aurkezpena egin du eta udako ikastaro bat antolatu zuen UPV/EHU 2006an; eta askotariko jarduerak antolatu ditu, halaber, hala nola mahai inguruak eta hitzaldiak. Adierazitako guztiaz gain, Eusko Legebiltzarrean bertaratzeko aukera eduki zuen eta aipatutako deklarazioaren printzipioak bere eskumenen baitan barne hartzeko eskatu zien legebiltzarkideei.

Bakeari buruzko gobernu planetan egindako parte hartzea

Unesco Etxeak aktiboki parte hartu du Eusko Jaurlaritzako administrazioetatik bakearen eta bizikidetzaren alde gartutako ekimenetan, eta bere ekarpena egin dio gaur egungo bake prozesuaren garapenari. Horretarako, Eusko Legebiltzarrean bertaratu zen, motibazio politikoko indarkeriazko testuinguru baten Giza Eskubideen urratzeen biktimei buruzko txostena aurkezteko, edo bizikidetzarako proposamenen dokumentu bat aurkeztu zuen Kontsulta Kontseiluaren aurrean. Gaur egun, Unesco Etxea Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetzaren Demokratikorako Planaren jarraipena egiten duen Kontsulta Kontseiluko kidea da. Aipatutako kontseiluaren hainbat jardueraren koordinazioaz arduratzen da eta Planaren esparruan eskaintzen diren bakearen kulturari eta giza eskubideei buruzko prestakuntza ekimenetan parte hartzen du.

Ikastaroak eta mintegiak

Bakearen kulturaren eta giza eskubideen esparrutik, Unesco Etxeak Euskaditik kanpoko bakearen kulturaren esperientziak aurkeztu ditu eta gatazka ondorengo berreraikuntza eta adiskidetzea landu eta gatazka bat bizi izandako eta gaur egun konponbidea lortzeko bidean dauden herrialdeen kasuak aztertu dira, kontrakoak diren bi aldeetako ordezkariekin elkarrizketarako abaguneak sortuz. Esperientzia horiek guztiak 2000. urtean garatu ziren.

Antolatutako azken ekitaldia Latinoamerikako oroimenaren eraikuntzari buruzko mintegi bat izan da eta Kolonia, El Salvador eta Boliviako kasu zehatzak aztertu dira bertan, herrialde haietan nola lan egin duten ezagutzera emateko. Helburu horri helduta, hainbat ikastaro eta mintegi antolatu dira, bakearen eraikuntzaren nazioarteko esperientziak ezagutzera emateko eta ikaskuntza berrien bitartez Euskadin bakea eraikitzen la-

guntzeko. Horrela, 2005ean *Gazteek bakearen eraikuntzan duten zeregina: Ipar Irlandako esperientzia* izeneko mintegia antolatu zen, eta 2009an, berriz, *Gizarte zibilak bakearen eraikuntzan duen zeregina* lantegia garatu zen; 2011n, berriz, *Gazteak eta bakearen kultura* mintegia antolatu zen, Gazteak, Kultura eta Bakea Gazteen Trukerako programaren esparruan, eta Dublingo (Ipar Irlanda), Malagako eta Euskadiko pertsonak parte hartu zuten.

XIRIMIRI GAZTE TALDEA

Donostiako San Vicente parrokiako aisialdiko taldea da Xirimiri Gazte Taldea, hemendik aurrera, Xirimiri. 2002ko Gabonetan alderdi politiko guztietako gazteekin mahai inguru bat egitea proposatu zen, planteamendu garbi batekin: gazteen artean helduen artean baino errazago lor daiteke adostasuna eta elkar ulertzea.

Alderdi politikoetako pertsonekin harremanetan jarri eta hitz egin ondoren, mahai inguru publiko bat antolatu zen alderdi politiko guztietako gazteekin (PP, PNV, EA, Aralar, EB, PSOE, PP, Ezker Abertzalea) eta Lokarriko pertsona baten laguntzarekin. Hurrengo urtean, 2003an, beste mahai inguru bat egin zen, planteamendu berarekin.

Hirugarren edizioaren ondoren, 2005ean, aurrerapauso bat eman zen, eta mahai inguruan parte hartu zuten pertsonen elkarriketa prozesu bat garatu eta adostasunak lortzeko proposatu zitzairen, EGKren bake atalaren koordinazioarekin. Lehenik eta behin, horrelako prozesu bat aurrera ateratzeko baldintzak sortzeari ekin zitzaion. Kideei esan zitzairen sentsibiltate politiko guztiekin elkarriketa prozesu zuhur bati ekin nahi zitzaioela, non parte hartzaileek beren izenean parte hartuko zuten, eta ez alderdi politiko baten ordezkari gisa.

2006 hasieran sortu zen taldea eta Bergarako parrokiari hasi zen lanean, parrokiak espazio diskretu bat utzi baitzuen parrokiako lokaletan. Hilean behin antolatu ziren elkarriketa espazioak urte eta erdiz, EGKren eta Lokarriren diru laguntzarekin. Koordinazio taldeak -Xirimiriko kide bat, EGKko kide bat eta Lokarriko kide bat- dinamizatzen zituen bilerak eta berak idazten zituen lan egiteko oinarri izango ziren dokumentuak, ahalik eta inpartzialtasun handienarekin.

Urte eta erdi horretan hainbat topagune antolatu ziren, baina dokumentu adostua ixteko zorian zeudela, taldeak ez zuen aurrera jarraitu. Gai politikoetan -erabakitzeko eskubidea, adibidez-, indarkeria baztertzeko beharrea edo biktimen tratamenduan adostasun nahikoa lortu zen eta, ondorioz, dokumentuak ikuspegi nahiko zabala zuen eta gatazkaren eta indarkeriaren arrazoiei eta diagnostikoari buruzko ondorioak barne hartzen zituen. Dokumentuak erabateko babesa lortu ezean jendaurrean aurkeztuko ez zela erabaki zuen taldeak, eta ez zen aurkeztu. Azkenean, Ahotsak ekimenarekin garatutako prozesuaren antzekoa izan zitezkeen ekimena, baina gazteak protagonista izanik oraingoan, ez zen aurrera atera.


Prozesu hartan sortutako erlazio pertsonalak azpimarratu behar dira, baita parte hartu zuten pertsonen artean sortutako sinergiak ere. Horrela, erlazio pertsonalak mantentzea erabaki zen, egunen batean prozesuari berriro ekitea erabakitzen bazen lanerako prest egoteko.

AURKIBIDEA

Sarrera labur bat	5
-------------------------	---

Euskadin Bakearen aldeko erakunde era mugumenduak

ARGITUZ	9
ARTAMUGARRIAK ETA BATZART!.....	12
BAKEAZ.....	16
BAKEOLA	19
BAKETIK	22
BIDEA HELBURU	25
DEMAGUN HAUSNARKETARAKO TALDEA	28
DENON ARTEAN - PAZ Y RECONCILIACIÓN.....	31
EGK. EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA	33
ELKARRI.....	36
GIZA ESKUBIDEEN HEZKUNTZARAKO ETA EUSKADIN BAKEAREN ALDEKO ERAKUNDEEN FOROA	40
ETIKARTE FUNDAZIOA.....	43
FERNANDO BUESA BLANCO FUNDAZIOA	45
LEIZAOLA ELKARGOA.....	48
GERNIKA GOGORATUZ	50
GESTO POR LA PAZ.....	53
GEUZ. GATAZKA ERALDATZEKO UNIBERTSITATE ZENTROA.....	56
LOKARRI.....	59
GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA.....	62
UNESCO ETXEA.....	65
XIRIMIRI.....	68



DSS2016.EU